

Euskararen Aholku Batzordea

2000. urteko oroitza

Vitoria-Gasteiz, 2001eko martxo

AURKIBIDEA

0. Sarrera

1. EBPNren komunikazio berezitua eta komunikazio orokorra

- 1.1. Komunikazio orokorra
- 1.2. Komunikazio berezitua

2. EBPNren hiru helburu estrategikoen garapena 2000. urtean

- 2.1. Herri-administrazioei dagozkien neurrien garapena
- 2.2. Herri-administrazioetan garatu ez diren neurriak
- 2.3. Garapena helburu estrategikoka
 - 2.3.1. Euskararen ondorengoetaratzea
 - 2.3.2. Euskararen erabilera
 - 2.3.3. Euskararen elikadura

3. EBPNko hiru helburu estrategikoak eguneratzeko aholku-proposamenak

- 3.1. Euskararen ondorengoetaratzea
- 3.2. Euskararen erabilera
- 3.3. Euskararen elikadura

4. Corpus plangintza

- 4.1. Toponimiako Batzorde-atal Berezia
- 4.2. Terminologiako Batzorde Berrikuslea
- 4.3. Hizkuntzen Industrien garapena

5. Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako eta Iparraldeko erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzarako ekimenak

6. Lege-garapenerako hainbat proposamen

7. Herri-aginteen arteko koordinazioa hobetzeko ekimenak

- 7.1. Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordearen osakera
- 7.2. Hakobari aurkeztutako proposamenak
- 7.3. Azpiegituren sustapena
 - 7.3.1. Euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko, pertsona juridiko pribatuei dirulaguntzak emateko deialdia
 - 7.3.2. Komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskarazko komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntza-deialdia

- 7.3.3. Hizkuntza-normalkuntzako zerbitzuak eratu edo sendotzeko eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia entitate edo entearen esparruan garatzeko Euskadiko Autonomia Erkidegoko toki-entitateei eta haiei lotutako edo haien menpeko entitateei dirulaguntzak emateko deialdia
- 7.3.4. Entitate pribatuetan euskara-planak garatzeko esleitutako dirulaguntzak emateko deialdia
- 7.3.5. Azpiegitura estrategikoekin izenpetutako hitzarmenak
- 7.4. Euskararako aurrekontuak

8. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eta Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoaren arteko erkaketa eta horren emaitza nagusiak

- 9. EBPNren udaletarako garapena
 - 9.1. Lanaren metodologia
 - 9.2. Helburuen hedapena

SARRERA

Euskararen Aholku Batzordearen antolamendu eta funtzionamenduaren araudia aldatzeko eta bateratzeko uztailaren 11ko 132/2000 Dekretuaren zazpigarren artikulua finkatzen dituen egitekoetan oinarrituta, Euskararen Aholku Batzorde honen Batzorde-atal Iraunkorrek prestatutako txosten honetan, Euskararen Aholku Batzordearen eskutik eta bere urteko lan-egitarauari jarraiki, 2000. urtean garatu diren ekimenak jaso dira.

2000ko lan-egitarauetan ageri zen bezalaxe, gogoan izan dira Eusko Legebiltzarraren 1999ko abenduaren 10eko ebazpenetan jasotako eskariak.

Hori guztia argitzeko, txosten honen eraskin gisa bildu dira: Euskararen Aholku Batzordearen antolamendu eta funtzionamenduaren araudia aldatzeko eta bateratzeko uztailaren 11ko 132/2000 Dekretua eta Eusko Legebiltzarraren 1999ko abenduaren 10eko ebazpenak

1. EBPNren komunikazio berezitua eta komunikazio orokorra.

1.1. Komunikazio orokorra.

Sektorez sektore EBPNren berri emateari begira, honako ekimen hauek bideratu dira:

EABko kide guztiei hainbatetan "EAB Berriak" izeneko informazio-orria bidali zaie EBPNren komunikazioaren zein garapenaren inguruko albisteak jakinarazteko.

Gizarte-eragile zein udal guztietara 2000. urtean iristea ezinezkotzat joenez, irizpideon arabera egin dira aurkezpenak: gizarte-eragile bakoitzak eskatzea; aurkezpena EABko kideek proposatu eta antolatzea; Administrazioak sektore bakoitzarekin dituen hitzarmenak sinatzeko edota dirulaguntzen berri emateko eratzen dituen batzarrez baliatzea. Hori horrela, honako eragile hauei komunikatu zaie: Ipar Euskal Herriko gizarte-eragile nagusienei; erabilera-planak dituzten enpresa eta zerbitzu-enpresei (EMUN); hezkuntza-arloko (UEU), euskalduntze-alfabetatzeko eta toki-mailako (Txorierriko Mankomunitatea) gizarte-eragileei, besteak beste. Halaber, Euskal Herriko euskara-azpiegitura pribatu nagusiekin izandako harremanetan eta horiekin elkarlanean egindako prentsaurrekoetan, eta abar eman da EBPNren berri.

1.2. Komunikazio berezitua.

Herri-aginteei eta euskalgintzan diharduten elkarte nagusiei EBPNren neurriak jakinaraztea eta horiek garatzeko urtez urte zein egitarau garatuko dituzten galdegitea izan da egindakoa.

Horiek horrela, Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde-atal Iraunkorrek 1999ko uztailaren 7ko bileran onarturiko komunikazio-planaren irizpideei jarraituz, aurtengoan, honako erakunde eta elkarteei jakinarazi zaizkie EBPNko neurriak:

- Arabako Foru Aldundiari (2000/03)
- Bizkaiko Foru Aldundiari. (2000/01)
- Gipuzkoako Foru Aldundiari (1999/12)
- Donostiako Udalarari (2000/05)
- Gasteizko Udalarari (2000/05)
- Bilboko Udalarari (2000/07)
- Eusko Jaurlearitzaren sail guztiei

Erakunde horiei, EBPN orokorrean aurkezteaz gain, dagozkien neurri zehatzak jakinarazi zaizkie, bai eta elkarlanerako hainbat proposamen egin ere.

Esan bezala, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, sail eta erakundeka jakinarazi dira neurriak. Hona helburuz helburu zeini egin zaizkion jakinarazpenak:

1. helburu estrategikoa. Euskararen Ondorengoetaratzea:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari,
- Lehendakaritzari,
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundeari,
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Planen Zuzendaritzari eta Koordinaziorako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari.

2. helburu estrategikoa. Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari,
- Osasun Sailari,
- Kultura Sailari (bi sailburuordetzetako zuzendaritzei),
- IVEF-SHEEri
- HABEri,
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari,
- Herrizaingo Sailari,
- Ogasun eta Herri Administrazio Sailari,
- Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari,
- Lehendakaritzari,
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei.

3. helburu estrategikoa: Euskararen elikadura

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari,
- Kultura Sailari (bi sailburuordetzetako zuzendaritzei),
- HABEri,
- EITBri,
- Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari,
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei.

Sail, zuzendaritza edo erakunde bakoitzeko ordezkariekin izandako bileretan, bakoitzari zegozkion neurriak eta neurrien laburpen fitxa aurkeztu eta luzatu zitzaizkien, eta egitarauak, proposamenak edo iradokizunak egiteko eskatu zitzaien. Fitxak osatzeko, ad hoc prestatutako datutegia ere eman zitzaien.

2. EBPNren hiru helburu estrategikoen garapena 2000. urtean.

Komunikazioaren ondorioz jasotako datuen arabera, Eusko Jaurlaritzaren sailek, lehen aipatutako autonomiadun erakundeek eta foru-aldundiek hainbat egitarau garatu dituzte.

2.1. Herri-administrazioei dagozkien neurrien garapena.

Neurri bakoitza garatzeko egitarauak era honetan sailkatu dira:

- Moldatu ez diren egitarau nagusiak, 2000. urtea baino lehen abian jarritakoak eta daudenetan utzi direnak.
- Moldatu diren egitarau nagusiak, hau da 2000. urtea baino lehenago hasita egonik, EBPN dela-eta aldaketaren bat izan dutenak.
- Egitarau berriak, hau da lehen aldiz 2000. urtean jarritakoak abian.

	Euskararen Ondorengoetaratzea	Euskararen Erabilera	Euskararen Elikadura	Guztira
Neurri-kopurua	16	41	34	91
Moldatuko ez diren egitarauak	35	46	23	104
Moldatuko diren egitarauak	7	31	39	77
Egitarau berriak	16	109	59	184
EGITARAUAK GUZTIRA	58	186	121	365

Egitarau horien artean bereiz daitezke dirulaguntza-deialdietan eta kontratazioetan hizkuntza-irizpideen ezarpenari loturikoak. Izan ere, ahalegina egin da erakunde bakoitzaren berariazko egitarauetz gain, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak modu horizontalean sail-erakunde guztietan izan dezan eraginik. Hona, helburu bakoitzean hizkuntza-irizpidea kontuan duten egitarauen kopurua:

	Euskararen Ondorengoetaratzea	Euskararen Erabilera	Euskararen Elikadura	Guztira
Neurri-kopurua	16	41	34	91
Hizkuntza-irizpidea ezartzen duten egitarauak	1	27	11	39

Une honetan, deialdi eta kontratuz kontratu ebaluazioa eta balorazioa egiteko modua ari da aztertzen; urtez urte hizkuntza-irizpideen ezarpena areagotuz joateko eta horien eragina modu objetiboan neurtu ahal izateko.

2.2. Herri-administrazioetan garatu ez diren neurriak.

EBPNren 2000. urteko jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek garatutako neurriak hartu dira gogoan. Hori da ondoren aipatzen diren neurriak garapenik ez izatearen arrazoietakoa bat. Hain zuzen ere garatu ez diren neurri horien artean, badira beste erakunde batzuek gauzatu beharrekoak. Horren adibiderik garbiena euskararen erabileraren helburu estrategikoan elizaren esparruari loturiko neurriak ditugu. Hona garatu gabeko neurrien kopuruak, ikuspegi orokorra ematearren.

	Euskararen Ondorengoetaratzea	Euskararen Erabilera	Euskararen Elikadura	Guztira
Neurri-kopurua	16	41	34	91
Egitaraurik gabeko neurriak	1	5	5	11

Euskararen ondorengoetaratzeari buruzko helburu estrategikoa dela eta, neurri bakarra geratu da garapenerako egitasmorik gabe; nolana ere, ezin da esan neurri hori 2000. urtean garatu ez denik. Izan ere, neurria Euskal Herriko Unibertsitateari eta beste unibertsitate batzuei jakinaraztekoa eta horiek betetzekoa da; baina Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien lan-egitarauak jaso direnez, ez da neurri honen garapenik ageri.

VI.3.1.a.04. *"Unibertsitateko ikasketak, ikerketa eta sorkuntza euskaraz egiteko eskubidea aitortu unibertsitateko ikasle, irakasle eta ikerlariei, horretarako euskarazko unibertsitate-eskaintza areagotuz, euskarazko irakasleak prestatzeko plana taxutuz, gutxienez enbor-ikasketak euskaraz eskainiz eta lehentasunezko espezialitateak finkatuz."*

Euskararen erabilerari buruzko helburu estrategikoa dela eta, bost neurri geratu dira egitaraurik gabe. Hona hemen:

VI.3.2.a.05. *"Administrazioan erabiltzen diren testu juridikoak euskaraz egokitu, lexiko berezitua finkatzen jarraitu eta terminologi kontsultak egiteko zerbitzu eraginkorra eskaini"*.

Neurri hori Ogasun eta Herri Administrazio Sailari jakinarazi zitzaion, bereziki Sail horri atxikitako IVAP-HAEEK gara ditzakeen egitarauen berri jasotzeko. IVAP-HAEE autonomiadun erakundea den aldetik, Ogasun Sailak ez ditu komunikatu erakunde horren eskumeneko arloetako egitarauak.

VI.3.2.a.06. *"Unibertsitatean, Zuzenbide eta Ekonomia ikasketak euskalduntzeari lehentasuna eman, horiek baitira administrazioko goi-mailako teknikarien harrobi nagusiak"*.

Neurri hori Euskal Herriko Unibertsitateari eta beste unibertsitate batzuei jakinaraztekoa eta horiek betzekoa da.

VI.3.2.g.01. *"Euskaldunak nagusi diren lekuetan euskaraz egin: euskaldunez eta erdaldunez osaturik dagoen kristau elkarteari ez litzaizkioke elizkizunak erdara hutsean eskaini beharko, are gutxiago, haurrak eta gazteak elebidunak direla jakinik. Sarritan egiten den euskara hutsez edo erdara hutsez banaketa gainditu eta euskaldunak nagusi diren tokietan euskara hutsean egiten jarraitzeaz gain, beste tokietan, meza elebidun gehiago eskaini."*

VI.3.2.g.02. *"Bihar-etziko eliz arduradunen prestaketaz arduratzen diren Euskal Herriko Teologi Fakultate eta etxeei gai batzuk, bederen, euskaraz emateko eskatu, erlijio-gogoeta bertan sendo erro dadin eta Euskal Herriko Elizak inkulturazioa eta inguru elebidunen behar den elkar-eramana bultzatzea dezan."*

VI.3.2.g.03. *"Euskarari buruzkoetan, ahalik eta bateratsuen jokatzeari eskatu elizbarrutiei."*

Hiru neurriok Erlijio esparrukoak dira eta, nagusiki, Elizbarrutiek garatzekoak. Esan bezala, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien lan-egitarauak jaso direnez, ez da neurri horien garapenik ageri.

Euskararen elikadurari buruzko helburu estrategikoa dela eta, bost neurri geratu dira egitasmorik gabe. Hona hemen:

VI.3.3.b.02. *"Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio."*

VI.3.3.c.03. *"Euskal liburuarekiko politika bateratua egin, lurralde eta sail administratibo desberdinetan."*

VI.3.3.e.06. *"Nahiz teletestuaren bidez nahiz telebista Internetekin lotuta, hizkuntzari buruzko saioak egin: ikastaroak, lehiaketa, aholkuak, galde-erantzunak, umeentzako saioak, eta abar."*

VI.3.3.f.02. *"Herri-erakundeek euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate-prozesuko eragileen ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete."*

VI.3.3.g.03. *"Kulturgintza: euskara ulertzeko gai direnak ere erakartzen saiatu."*

2.3. Garapena helburu estrategikoka.

Jarraipenerako batzorde-atalek, bakoitzak bere esparruan, aztergai duten helburu estrategikoan ageri diren neurriei erantzuten dien egitarauen berri izan dute eta horiei buruzko iritzia eman dute. Hain zuzen ere, egitarau horiek eragingarriak, partzialki eragingarriak edo ez-eragingarriak diren adierazi dute. Bestalde, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eguneratzeari begira, egitarau horien gaineko iritzia eman dute, zenbaitetan berriak proposatu dituzte, garapenik gabe geratu diren neurriak aztertu dituzte, eta begiratu dute, halaber, beste neurri edo helburu estrategikoren bat txertatu behar den.

EBPNren 2000. urteko garapenaren balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa eginda, beraz, oro har sumatu da EBPN onartu izanak ez duela ekarri aldaketa kualitatibo handiegirik hainbat esparrutan. Orain artekoari eutsi zaio, gutxi edo gehiago, egia bada ere egitarau berriak jarri direla abian eta lehendik zeuden baten batzuk moldatu egin direla.

Argi ikusi da, bestalde, Euskararen Aholku Batzordeak zein Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposamen zehatzak egin behar dizkietela herri-erakundeei, EBPNren garapen sendoa eta eragingarria lortu nahi izatekotan. Beraz, 2001. urtean gidaritza-lan horri eutsi beharko zaio.

Euskararen Aholku Batzordeak 2000. urtean EBPNren jarraipena eta ebaluazioa egiteko egin duen lanak egoeraren argazki zehatza izateko eta interbentzio behar handienak non dauden ezagutzeko bide eman du.

2.3.1. Euskararen ondorengoetaraztea.

Helburu estrategiko honetan hiru esparru jorratzen dira: irakaskuntza (10 neurri), euskalduntze-alfabetatzea (4 neurri) eta familia bidezko jarraipena (2 neurri).

Helburu estrategiko honetako neurriak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundeak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Planen Zuzendaritzak eta Koordinaziorako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak garatu dituzte.

1. Moldatu ez diren egitarau nagusiak

Multzo honetan ditugu helburu estrategiko honi erantzuten dioten egitarau gehienak. Horren arrazoietakoa bat izan daiteke aurten jakinarazi zaiela lehenengo aldiz herri-administrazioei Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta, agian, ez dutela nahikoa denborarik izan ohiko dituzten egitarauak neurrien argitan baloratzeko eta abian dagoena albora utzi gabe egitarau berriak proposatzeko edo dituztenak moldatzeko. Nolanahi ere, helburu estrategiko honetako neurriei erantzuten dieten egitarau asko eta asko sendo errotuta daude gizartean, horren adibide ditugu irakaskuntzako NOLEGA, EIMA, eta abar.

2. Moldatu diren egitarau nagusiak

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu aurretik abian ziren egitarauak dira horiek, baina aurtengo ekitaldian aldaketaren bat izan dutenak EBPnko neurriari hobeto erantzuteko. Helburu estrategiko honetan, moldatu diren 7 egitarau ezberdin daude. Irakaskuntzaren esparruan, eskolaz kanpoko ekintzen inguruko egitaraua; familia bidezko jarraipenaren esparruan, familia bidezko jarraipen-egitaraua; euskalduntze-alfabetatze esparruan, esparru berezietako ikastaldean prestakuntza, euskaltegi-tako emaitzen adierazleak eta euskaltegien mapa daude, besteak beste.

3. Egitarau berriak

16 egitarau berri jarri dira abian 2000. urtean. Besteak beste azpimarra ditzakegu irakaskuntzaren esparruan, Xagux@rrak, Donatoren tertulia izeneko irakurzaletasun kanpaina, Iparraldera ere hedatuko dena (beste esparru batzuetan ere ageri da); Iparraldeari loturiko hainbat egitarau; ikastetxeak intranet baten bitartez lotzeko den PREMIA egitasmoa. Euskalduntze-alfabetatzearen esparruan, berriz, HABEren eskutik kurrikulu berriaren hedapenari eta zabalkundeari dagozkionak dira gehienak. Familia bidezko jarraipenean, berriz, egitarau berri bat dago, hurrekin harremana duten heldu euskaldunentzako bi ikas-modulu euskaltegi-tan banatzekoa hain zuzen.

4.- Egitarauen balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa.

Egitarau guztiei aitortu zaie eragingarritasun-maila nahikoa. Nahikotasun horren barruan, mailaketa hau egin da:

- Egitarau eragingarriak aho batez edo ia aho batez: 7
- Egitarau eragingarriak gehiengoaren ustez: 23
- Egitarau eragingarriak kideen erdiaren ustez: 23
- Egitarau eragingarriak kideen erdiaren baino gutxiagoren ustez: 8

Eranskinean ageri da egitarau bakoitzak izandako puntuaketa

Egitarau eragingarriak aho batez edo ia aho batez:

Puntuazio altuena izan duten lehenengo hiru egitarauak irakaskuntzaren jardun-esparrukoak dira eta denek erantzuten diote neurri berari. Bestalde, egitarau horiek ez dira berriak, lehendik datozenak baizik eta aurtengoan moldaketarik izan ez dutenak.

Neurria: VI.3.1.a.03 Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.

1. Egitaraua: VI.3.1.a.03.3.2

Euskal girotze barnetegiak. Zeharo euskalduna den giroan murgildurik, ekintza akademikoak alde batera utziz, jolasak, jokoak, hizkuntza-ariketak, ahozko adierazpenerako saioak dira barnetegiko programaketaren oinarria.

2. Egitaraua: VI.3.1.a.03.3.1

Hizkuntz Normalkuntzako Proiektuak bideratu. Guztira 305 ikastetxe , publiko eta pribatu, 127.000 ikasle, 8.600 irakasle. Eskola giroan euskararen erabilera indartzeko inoiz eratu den ekimenik zabalena. Aurrekontuari dagokionez, NOLEGAko deialdi guztien diru-babesaz gainera beste lau iturriok ditu: Aholku-elkarteen hitzarmena (20.000.000 pta.), ikastetxe pribatuetako arduradun-gastuak (20.000.000 pta.) , ikastetxe publikoetako arduradun-gastuak (I.kapitulua) eta PATetako Normalkuntza teknikarien dedikazioa (I. kapitulua).

3. Egitaraua: VI.3.1.a.03.3.3

NOLEGA deialdiak. Honako ekintza hauek biltzen ditu: 1.- Bertsogintza, 2.- Antzerkia, 3.- Ikabil (Ikastetxeen arteko binakako loturak), 4.- IKE (Ikastetxez kanpoko ekintzak), 5.- Kantak, 6.- EGE (Euskal Girotze Egonaldiak)

Laugarren egitarauak, berriz, irakaskuntzaren jardun-esparrukoa bada ere, beste neurri bati erantzuten dio, VI.3.1.a.05 neurriari hain zuzen.

Lan-munduaren euskalduntzearekin lotutako planaren bidez erabaki Lanbide Heziketan euskaraz eskaini beharreko zikloak, irakasleen euskarazko prestakuntza eta irakasmaterialen eraketa.

4. Egitaraua: VI.3.1.a.05.3.3

EIMA III, Softwarea euskaraz.

Egitarau eragingarriak kideen erdiaren baino gutxiagoren ustez (puntuazioan azkenak):

Hemen emaitzak antzekoak dira jardun-esparruari bagagozkio. Izan ere, puntuazio baxuena izan duten lau egitarauak euskalduntze-alfabetatzekoak dira.

Egitarau horietako hiruk azterketa, ikerketa edo ebaluazioa izatea dute amankomunean. Laugarrena, berriz, kurrikulu berriaren inguruko prestakuntzari loturikoa da.

Neurria VI.3.1.b.02

Emaitzei buruzko gogoeta sakona egin. Kalitate-irizpideak finkatu eta adostu: adierazle egokiak aukeratu, bakoitzaren pisua erabaki, euskaltegien emaitzak aztertu eta onenak saritzeko mekanismoak antolatu. Funtzionarioak zein irakasleak euskalduntzeko egitasmoak sakonki aztertu, neurtu eta eraberritu.

61. egitaraua: VI.3.1.b.02.3.1

IRALE eta HAEEkiko hitzarmenaren baitan, ebaluazio-bileretan parte hartu eta bertan jasotako diagnostia burutu.

Neurria VI.3.1.b.03: Euskalduntze-alfabetatzearen kurrikulu berriak egin (euskalkien trataera eta kultur edukiak kontuan hartuz) eta euskaltegi guztietara hedatu HABEK, ahalegin handiagoa eginez, EHUrekin batera, jardun didaktikoa hobetzeko.

60. Egitaraua: VI.3.1.b.03.3.4

Euskararen irakaskuntzaren inguruko hausnarketa sustatzeko eta irakasleen etengabeko prestakuntza indartzeko, aldizkari eta liburuak argitara eman, hala nola HIZPIDE eta Itzulpen Saila.

59. egitaraua: VI.3.1.b.02.2.2. (Ikus Neurria VI.3.1.b.02)

EGaren kudeaketa euskaltegietan: ABO zuzendaritzan parte hartzea, azterketak egin, zuzendu, emaitzak kaleratu.

58. egitaraua: VI.3.1.b.03.3.3. (Ikus Neurria VI.3.1.b.03)

Kurrikulu berriaren implementazioan eta euskaltegietako irakasleen formazioa sustatzeko bidean, euskaltegiek proposatutako ikastaro/mintegien eskariei erantzun.

Horiek horrela, balorazioaren alderdirik aipagarrienak honako hauek dira:

- Oso eragingarritzat jo dira euskara eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza izatera bideratutako egitarauak: girotze-barnetegiak, ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntzako Proiektuak eta NOLEGA deialdietakoak (Bertsogintza; Antzerkia; Ikabil; Ikastetxez Kanpoko Ekintzak; Kantak; Euskal Girotze Egonaldiak).
- Horrekin batera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak garatutako PREMIA egitarauaren inguruan, adierazi da egitarau hori sare publikora ezezik pribatura ere zabaltzeko beharra; teknologia berriak modu didaktikoan erabili beharra eta ikastetxeetan Intranet zerbitzua erabiltzearen komenigarritasuna batean edo bestean gauzatu diren esperientziak besteei ezagutarazteko eta elkartrukeak sustatzeko.
- Bestalde, euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez, HABE erakunde barruko gestio-lanari loturiko egitarauak eragin sozial zuzena dutenak baino baxuago puntuatu dira, ez baitaie harreman zuzenik ikusi ondorengoetaratzeko helburuarekin, egitarau horien beharra zalantzatan jarri ez bada ere.

- Oro har, beraz, irakaskuntzaren eta euskalduntze-alfabetatzearen esparruetako neurriei erantzuteko egitarauak askitzat jo dira, eta lerro horretan lanean jarraitzeko deia zabaldu nahi da.
- Familia-jarraipena dela eta, egitasmo edo ekintza solteak badirela ikusi den arren, esparru horretako neurriei modu eragingarrian erantzungo dien egitarauen eskasia eta sistematizazio-eza geratu da agerian; izan ere honako hauek osatu eta sendotu beharra agertu du Euskararen Geroratzearen Batzorde-atalak:
 - Guraso eta seme-alaben arteko ekintzak konpartituak, eskolatik kanpo.
 - Gurasoen euskalduntze-alfabetatzeko programa egituratua.
 - Zerbitzu zehatzak gurasoentzat zein haurrentzat, asteburuetan familia osoak garatzeko modukoak, esaterako.
- EBPnko esparru-neurri zehatzak gaindituz, euskara-erdaren elkarbizitzaz eta hizkuntza bi edo hiruen konpartimentazio edo banaketaz hausnartu eta sendotu beharra ikusi du Euskararen Geroratzearen Batzorde-atalak. Ildo horretan jarduteko borondatea erakutsi du eta hausnarketa hori bideratzeko formulak bilatzeari ekingo dio.

2.3.2. Euskararen erabilera

Helburu estrategiko honetan zazpi esparru jorratzen dira: Administrazioaren esparrua (6 neurri), gune euskaldunenak (4 neurri), informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak (11 neurri), enpresa mundua (5 neurri), aisia (4 neurri), kirola (5 neurri) eta erlijioa (3 neurri). Helburu estrategikoaren sarrera gisakotik, berriz, 3 neurri atera dira. Guztira, beraz, 41 neurri.

1. Moldatu ez diren egitarau nagusiak

Sail eta erakundeen jardunean ohikoak diren edo urte tarte jakin baterako onartuta dauden egitarau zenbait ageri da multzo honetan; esaterako, Hezkuntza-sustapenerako ekintzak burutzeko dirulaguntzetarako urteroko deialdia; hizkuntza naturala prozesatzeko egitaraua (INTEK); Herrizaingo Saileko ikastaro eta argitalpen batzuk eta langileak euskalduntzeko edota trebatzeko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eskutik datozenak.

Osotasunari begiratuta, hortaz, ez kuantitatiboki ez kualitatiboki ez dira pisuzkoenak multzo honetan aurki ditzakegun egitarauak, esan bezala 46 egitarau ezberdin dira.

2. Moldatu diren egitarau nagusiak

Kopurua ikusita, 31 hain zuzen, esan daiteke ahalegin berezia egin dela lehendik zeuden lan-lerroak aztertzeko eta ezarritako erronketara egokitzeko. Horren adibide garbi ditugu, baten batzuk aipatzekotan, "erakunde pribatuen euskara planak", "erakunde pribatuen euskara planetarako dirulaguntza deialdia" eta "toki entitateetarako dirulaguntza deialdia". Lehenengo bietan, helburu mailakatuen araberrako ereduak landu eta ezarri dira; erabilera planak abian jartzeko dirulaguntzen kopurua nabarmen hazi da eta laguntza horien kudeaketa eta finantzazioa elkarlanean eraman dute Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek EBPNk dioenari jarraiki.

3. Egitarau berriak

Egitarau berriei gagozkielarik, kopuru aldetik ugarietak dira helburu honetan, 109 hain justu. Administrazioaren esparruan, esaterako, euskara lan-hizkuntza izateko egitarauak, zerbitzuen kontratazioetan hizkuntza-irizpideak jartzeari begirakoak, hizkuntza-normalkuntzako zerbitzuak osatzekoak, eta abar ageri zaizkigu. Teknologia berrietan ere antzematen da tinko heldu nahi zaiola esparru hau jorratzeari, egitarauen kopuruak ezezik elkarlan-bidea jarri izanak ere erakusten digutenez. Enpresa-munduko esparruan, bestalde, egitarau puntualak gain, aldaketa kualitatibo handia den neurrian, aipagarria da Kultura Sailak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak esparru sozioekonomikoko euskararen erabilera-planak elkarlanean garatzeko, finantzatzeko eta kudeatzeko konpromisoa hitzartu izana.

Kirolari dagokionez, hainbat egitarau berri ditugu esparru honetako materialgintzari, kirol eragileen prestakuntzari, sentsibilizazioari eta erabilera-planei lotuta.

Egitarau berrien artean, beste multzo interesgarri bat osatzen dute dirulaguntza-deialdietan eta kontratazioetan hizkuntza-irizpidea ezartzeari begirakoak, 27 egitarau dira hain zuzen.

4.- Egitarauen balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa.

Egitarau guztiei aitortu zaie eragingarritasun-maila nahikoa. Nahikotasun horren barruan, mailaketa hau egin da:

- Egitarau eragingarriak aho batez edo ia aho batez: 125
- Egitarau eragingarriak gehiengoaren ustez: 54
- Egitarau eragingarriak kideen erdiaren ustez: 26

- Egitarau eragingarriak kideen erdiaren baino gutxiagoren ustez:
15

Egitarau eragingarriak aho batez edo ia aho batez:

Puntuazio altuena duten lehenengo lau egitarauetatik hiru kirolaren jardun-esparrukoak dira eta denek erantzuten diote neurri berari. Bestalde, egitarau horiek berriak dira. Ondoren datoz, puntuazio-hurrenkeran lau egitarauok eta dagokien neurria:

Neurria: VI.3.2.d.03

Kanpaina erraldoiak antolatu beharrean, banan-banako sentiberatze-jardunak egin industriad, merkataritzaz, lanaz eta lanbide-heziketaz arduratzen diren sailekin; enpresei zerbitzu emateko dauden enpresa publikoekin; enpresari, merkatarari eta profesionalen elkargoekin, eta udalerrri euskaldunetako enpresariekin, enpresa-munduko eragileen partehartzea lortzeko.

1. Egitaraua: VI.3.2.d.03.1.1.

Enpresari Elkarte eta Sindikatuekin harreman zuzena bideratu, euskera biziberritzeko plana azaldu eta lan munduan egin daitezkeen egitasmoak adosteko.

Neurria: VI.3.2.f.01.

Hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena; entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak; sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri-mailakoa.

2. Egitaraua: VI.3.2.f.01.1.1.

Aurreko urteetan egindako terminologia hustuketa amaitu eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurten eratuko duen Terminologia Batzordeari helaraziko zaio, aztertu eta, hala badagokio, oniritzia eman diezaion. Hustuketarekin batera, kirolaren, jolasaren eta heziketa fisikoaren arloan aditu diren eta terminologia hori aztertzen lagun dezaketenen izenak proposatuko dizkio SHEEK Terminologia Batzordeari.

3. Egitaraua: VI.3.2.f.01.1.2.

Kirol, Jolas eta Heziketa Fisikoari buruzko hiztegia argitaratzea. Egistasmo honen bidez amaiera eman nahi diogu SHEEn eta beste leku batzuetan argitaratu diren liburu, artikulua eta abarren terminologia hustutzeko 1996-97, 97-98 eta 98-99 ikasturteetan hainbat bekadunek egindako lanari. Horrekin batera, hiztegiak baino sarrera gehiago hartuko duen termino zerrenda jarriko da SHEeko sare informatikoan. Izan ere, hiztegitik kanpo utziko dira beste hiztegi espezializatu batzuetan aurki daitezkeen terminoak, hala nola anatomiakoak. Termino zerrendan, aldiz, SHEeko ikasketetan erabilgarri izan daitezkeen sarrera guztiak agertuko dira, baita anatomia, pedagogia, legeria edo beste arlo batekoak ere.

4. Egitaraua: VI.3.2.f.01.1.5.

Kirol arloan behar den euskarazko materiala identifikatu, sortu eta kirol eragileen artean banatzea. Euskarazko kiroleko material berria sortzeko programa egin. Besteek egindako materiala argitaratzeko diru laguntzak atera. Eskola kiroleko programa teknikoak sortzea. Ikastaroetako material orokorra eta espezifikoa prestatu.

Egitarau eragingarriak kideen erdiaren baino gutxiagoren ustez (puntuazioan azkenak):

Hemen ageri zaizkigunak esparru eta neurri ezberdinetakoak dira, eta ezer gutxi dute amankomunean.

Neurria: VI.3.2.c.01.

Euskararen injinerutzaren industria bultzatu: autoria- eta edizio-erremintak (ortografia- eta gramatika-zuzentzaileetan oinarrituta daudenak), itzulpenari laguntzeko tresnak (hala nola, hiztegi elektronikoak eta terminologi baseak), gai-eremuetara eta testu-motetara egokituriko informatikako itzulpen-sistemak eta ahotsaren ezagupen eta sintesian egindako aurrerapenak.

220. egitaraua: VI.3.2.c.01.1.6

Morrisen hiztegiaren adierak gehitzea. Esaera eta esamoldeak, euskalki guztietakoak ingelesera itzultzea, Oxford Dictionary of Current Idiomatic English delakoa euskarara itzultzea, Euskaltzaindiaren hiztegi Orotarikoaren adierak sartzea. Hiztegia moldatu ingelesdunek erabil dezaten. Euskarari eta euskal kulturari buruzko artikulua entziklopedikoak sartu. Etimologiak sartu. Soinudun fitxategiak gehitu. Irudiak gehitu.

Neurria: VI.3.2.d.03.

Kanpaina erraldoiak antolatu beharrean, banan-banako sentiberatze-jardunak egin industriad, merkataritzaz, lanaz eta lanbide-heziketaz arduratzen diren sailekin; enpresei zerbitzu emateko dauden enpresa publikoekin; enpresari, merkatarari eta profesionalen elkargoekin, eta udalerrri euskaldunetako enpresariekin, enpresa-munduko eragileen partehartzea lortzeko.

219. egitaraua: VI.3.2.d.03.3.2.

EGAILANek, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren menpe dagoen Prestakuntza eta Enplegua Sustatzeko Akzioakako Baltzu Publikoak, berarekin lankidetzan ari diren zentruetako langileak birziklatzeko ikastaroak antolatzen ditu LANGAIren bitartez. Ikastaroetako irakasleak EGAILANeko 8 teknikari izaten dira. Ikastaroak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dira eta eskaeren arabera egiten dira gero batera edo bestera.

Neurria: VI.3.2.a.01.

Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioari erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.

218. egitaraua: VI.3.2.a.01.1.6.

Droga Gaietarako Idazkaritzak drogen arloari buruzko ikerketa lan bat burutzen du urte bitik behin, eta ikerketa bera eta hortik ateratako emaitzak argitaratu egiten dira. Argitalpen hori orain arte gaztelaraz egin bada ere, "Drogak: 2000" argitalpenak, berriz, euskarazko 40 orriko laburpena ere izango du. Txostena administrazioari langileek prestatzen dute eta itzulpena bertako itzultzaileek egiten dute.

Neurria: VI.3.2.d.04.

Unibertsitateak, zentro teknologikoen, lanbide-heziketako ikastetxeek eta institutuek antolatzen dituzten langileak birziklatzeko ikastaro zenbait euskaraz egin.

217. egitaraua: VI.3.2.d.04.1.2.

Justizia Administrazioari funtzionarioei urtero zuzendutako prestakuntza jarraiko programaren barruko ikastaro bat euskaraz eskaintzea.

Horiek ikusita, emaitza nagusiak bi izan litezke: batetik, egitarau horien beharra ez dela zalantzatan jartzen, eta, bestetik, ez diotela bete-betean, helburu estrategikoari erantzuten.

Horiek horrela, Euskararen aldeko Auzogintzaren eta Zerbitzugintzaren Jarraipenerako Batzorde-atalaren iritziz, EBPNren 2000. urteko garapenerako langai dituen esparruetan gauzatu diren egitarau guztiek dute eragingarritasun-maila nahikoa, aldeak alde.

Batzorde-atalak egin duen balorazioaren alderdirik aipagarrienak hirutan bil daitezke:

- Euskararen erabilera helburu estrategikoa den neurrian, interesgarritzat jo da Euskararen Aholku Batzordean aurkeztea eta aztertzea, administrazio mailan lantzen eta osatzen ari diren euskara-plan nagusienak: Justiziakoa, Osakidetzakoa eta Eusko Trenekoa.

- Teknologia berrietan euskararen erabilera bultzatu beharra azaldu da. Horren ildotik, ezinbestekotzat jo da indar egitea teknologia berrien inguruan proposatu diren egitarauetan, esaterako: gazteentzako atariak Interneten, euskararen ezagupen automatikorako sistemak eta multimediamiako ikasmaterialen prestakuntza eta zabalkundea.

Horren ildotik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Euskara sustatu, zabaltu edota normalizatzeko dirulaguntza-deialdiari, 40 milioitako diru-ekarpen gehigarria egin zaio. Horrela, deialdi horretan, guztira, 134.000.000 PTA bideratu dira.

- Aisialdiaren inguruan diharduten talde eta elkarteekin hitzarmen-bidea jorratzea proposatu da, zerbitzuak euskaraz eskaintzeko. Besteak beste: gazteentzako zerbitzuak, katekesia euskaraz, monitoreen prestakuntza eta materialen argitalpena.

2.3.3. Euskararen elikadura

Helburu estrategiko honetan zazpi esparru jorratzen dira: corpus-plangintza eta euskararen kalitatea (6 neurri); prentsa idatzia (3 neurri); liburugintza (4 neurri); irratia (4 neurri); telebista (7 neurri); publizitatea (3 neurri) eta kulturgintza (5 neurri).

1. Moldatu ez diren egitarau nagusiak

Multzo honek ditu egitarau gutxien, 23 hain zuzen. Aurreko urteetan abian jarritako egitarau horien artean aipagarriak dira, esaterako, euskal liburugintzarako laguntzabideak, liburutegi-fondoen katalogo elebiduna, Hezkuntza Sailaren eskutik datorren Bizkaierazko ikasmaterialak argitaratzeko laguntzen ingurukoa, HABEren ohiko hainbat prestakuntza-ikastaro, Kultura Sailak kudeatzen dituen Euskadi Literatur Sariak eta Kultura Sailaren eta EIZIEn arteko hitzarmena Literatura Unibertsalaren bilduma osatzeko, bestak beste.

2. Moldatu diren egitarau nagusiak

39 egitarau ezberdin ditugu multzo honetan. Aipatzekoa da prentsa idatziaren, irriaren eta telebistaren esparruetan, euskarazko komunikabideen deialdia: euskarazko komunikabide guztiak dirulaguntza gai izateko modua egiten du; teknologia berrien inguruan gara ditzaketen proiektuak finantzatzeko aukera ematen du; toki-mailako prentsa idatzia diruz laguntzeko herri-aginteen arteko harremanak areagotu eta sektore horrentzako dirulaguntzak osagarritasun-irizpidearen arabera banatzen dira. Egitarau horren aurrekontua ere nabarmen hazi da.

EITBren eskutik datozen egitarauen artean ere badira hainbat liburugintza eta literaturgintzarekin lotura estua dutenak: hitzarmena Euskal Editoreen Elkartearekin "Salako Leihoan" saioan argitaletxeek liburu berriak aurkezteko; arreta berezia eskaini literatura sorkuntzari "Bertatik Bertara" saioan; euskaraz argitaratzen diren liburu berriei buruzko elkarrizketak eta zozketa Euskadi Irratian, Euskadi Gaztean, Radio Euskadin eta Gasteiz Irratian.

3. Egitarau berriak

Egitarau berriak dira ugariak helburu honetan: 59 hain justu. Baten batzuk aipatzekotan, azpimarragarriak dira irakurzaletasuna sustatzeko Kultura Sailak, Hezkuntza Sailak eta EITBk elkarlanean garatzen ari diren Xagux@rrak, *Donatoren tertulia* kanpaina ibiltaria; EITBren plan estrategikoa; EITBren eskutik, halaber, datozen saio berriak eta dituzten testu guztiak informatizatzea eta corpus bakarrean biltzea formatu estandarra emateko; euskara-azpiegiturak sendotzekoa; Terminologia Batzordea eratzea xede duena; Toponimiaren ingurukoak eta EAEn hizkuntza-kontsultei erantzuteko zerbitzua abian jartzeko azterketa burutzeko dena. Egitarau horien kopuruak eta zer-nolakoak erakusten digu ahalegin berezia egin dela esparru honetako lanak aztertu eta EBPNk jarritako neurriei erantzuteko. Hizkuntza-irizpidea aplikatzearen ondoriozko 11 egitarau daude.

4.- Egitarauen balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa.

Egitarau guztiei aitortu zaie eragingarritasun-maila nahikoa. Nahikotasun horren barruan, mailaketa hau egin da:

- Egitarau eragingarriak aho batez edo ia aho batez: 29
- Egitarau eragingarriak gehiengoaren ustez: 58
- Egitarau eragingarriak kideen erdiaren ustez: 23
- Egitarau eragingarriak kideen erdiaren baino gutxiagoren ustez: 19

Egitarau eragingarriak aho batez edo ia aho batez:

Puntuazio altuena duten lehenengo lau egitarauetatik hiruk publizitatearen neurri bati erantzuten diote. Bestalde, egitarau horiek ez dira berriak, lehendik datozenak baizik, baina aurtengoan moldaketarik izan dutenak.

Neurria: VI.3.3.f.01. Euskaldunen merkatua eta honen kontsumo- eta errentagarritasun-ahalmenak aurkeztu publizitate-prozesuko eragileei (enpresa eta publizitate-agentzia handiei batez ere) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EITBk eta Euskararen Gizarte-Erakundeen Kontseiluak, ahulezietan aipatutako "inertzia", "errentagarritasun eza" eta "konnotazio negatiboak" neurri batean behintzat neutralizatzeko. Uste ezezkorrak, ohiturarik ezarena, errentagarritasunik ezarena eta abar gainditzeko publizitatea euskaraz egiteak dituen abantailak agertzen saiatu.

1. Egitaraua: VI.3.3.f.01.2.1.

Erakunde pribatuetako euskara planak.

2. Egitaraua: VI.3.3.f.01.2.2.

Erakunde pribatuen euskara planetarako dirulaguntza deialdia.

4. Egitaraua: VI.3.3.f.01.2.3. (Ikus VI.3.3.f.01 neurria)

Publizitatea euskaraz egin nahi duten bezeroak erakartzen ahalegindu, iragarkien sorkuntza zein itzulpena, errealizazioa nahiz grabazioa, asko zainduz eta erraztasunak emanaz.

Egitarau horiek direla eta, erakunde pribatuetan euskara planekin lotzen diren bi egitarauen helburu nagusia enpresa munduan euskara biziberritzea da. Publizitatean euskara erabiltzea, hortaz, enpresa munduko planetan lantzen den alderdia da.

Hirugarren egitarauak, berriz, beste neurri bati erantzuten dio, VI.3.3.02. neurriari hain zuzen.

Euskararen elikadurak bi arlo nagusi ditu: bata sorkuntza eta bestea kontsumoa. Beraz, lehenik eta behin, euskarazko kalitatezko sorkuntza sustatu eta babestu behar da eta, gero, elikadura hori kontsumitua izan dadin, produktu horien gaineko informazioa, motibazioa eta inplikazioa sustatu eta babestu.

3. Egitaraua: VI.3.3.02.2.4.

Zinean zein telebistan fikziozko filmek, animaziozkoak eta dokumentalak garatzeko eta ekoizteko prozesuetan inplizituki adierazpen kreatiboetara zuzendutako laguntzen deialdia. Dirulaguntzak adjudikatzeko orduan, euskararen erabilera balorazio-irizpide izatea. Nolanahi ere, jardueraren ondoriozko materialak (kartelak, programak, eta abar) euskaraz behintzat egon beharko du. Hori bete ezean, kitapen-erabakia hartuko du dagokion organoak. Euskaraz ez diren luzemetraien eta laburmetraien kasuan, euskarazko bertsioa egiteko laguntza emango da, horren zabalkundea egiteko.

Egitarau eragingarriak kideen erdiaren baino gutxiagoren ustez (puntuazioan azkenak):

Hemen emaitzak antzekoak dira jardun-esparruari bagagozkio. Izan ere, puntuazio baxuena izan duten lau egitarauetatik hiru irratigintzakoak dira.

Besteak, berriz, euskararen elikadurarekin zuzenean lotzen den neurri bati erantzuten dio, VI.3.3.01 neurriari, hain zuzen:

Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada elikatu egin behar da, liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez. Euskara, bigarren hizkuntza gisa, eskolan ikasi duen euskaldun berriari dituen hizkuntza-ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagundu behar zaio.

eta zernahitarakoa: Sebero Altube, jokin Zaitegi, Jon Mirande¹²⁹. egitaraua: VI.3.3.01.2.1

Bidegileak bilduma: euskara sustatu, sendotu, zabaldu eta normalizatzeko saioetan eragina izan dutenen berri eman belaunaldi gazteei, hizkuntza samur eta errazean. 4 karpeta berri 2000an: Atzerriko euskaltzaleak: Bonaparte (egina), Bähr, Humboldt, Webster; Omenaldikoak: Sorne Unzueta, Justo Garate, Alejandro Tapia-Perurena, Patxi Etxeberria; Euskal Kultur sustatzaile ospetsuak: Justo Mokoroa, Madeleine Jauregiberry, Karlos Santamaria, Barandiaran; Euskara jaso, Luis Villasante.

Hurrengo atalean ikusiko den moduan, egitarau hau moldatzeko ekarpena jaso da.

Neurria VI.3.3.d.04

Irrati euskaldunen eta euskara ikasten ari direnen arteko harremanak erraztu.

128. Egitaraua: VI.3.3.d.04.1.2.

DEIA egunkarian IKASTIRA izeneko atala burutu, AEKrekin lankidetzan.

Egitarau honek ez dio erantzuten aipatu neurriari.

127. egitaraua: VI.3.3.d.04.1.5

"Atxukarro" , Segura Irratian eta Loiolako Herri irratian hain ezaguna izan zen esatari ospetsuaren grabaketak berreskuratu, eguneratu eta euskara ikasten ari direnen artean ezagutarazi.

Egitarau hori dela eta, EITBk jakinarazi zuen ez dela 2000. urtean garatu, EITBek ez duelako baimena lortu Loiola eta Donostiako Herri Irratikoengandik.

Neurria VI.3.3.d.01

Entzulea erakartzeko interesgune bizi-biziak sortu, orain, garai batean ez bezala, irratiak gain komunikaziorako eta entretenimendurako aukera ugari baitugu etxean.

126. egitaraua: VI.3.3.d.01.2.4.

Eusko Irratiko emisoren irudi korporatiboa berritu.

3. EBPnko hiru helburu estrategikoak eguneratzeko aholku-proposamenak

Jarraipenerako batzorde-atalek egindako ebaluazioaren ostean, honako aholku-proposamenok egiten zaizkio Batzorde Osoari EBPnren 2001eko garapenerako, hala badagokio ontzat eman ditzan.

3.1. Euskararen ondorengoetaratzea.

1.- Familia-jarraipenerako EBPn biltzen dituen neurriak garatzeko lehen urrats gisa eta informazio zehatzagoa izatearren, familia-jarraipenaren esparruan abian diren edo noizbait izan diren egitarauen bilketa eta katalogoa osatzea eta gizarteratzea.

Horri jarraiki, Batzorde-atalak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari (Koordinaziorako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari) eskatzen dio behin betiko katalogoa osatzeko hiru arlo hauek kontuan izanda: sentsibilizazioa; eskolaratzea eta eskolaz kanpoko ekintzak.

Katalogo hori, informazio-bilketa izango dena, FAMILIA PROGRAMA osotasunean aztertzeke eta orokorrean planteatzeko abiapuntua izango da.

2.- FAMILIA PROGRAMAREN diseinua egitea 3-4 urterako planteamenduaz eta inplementazioa abian jartzea.

Familia jarraipenaren inguruko programak hiru zutabe ditu: sentsibilizazioa, eskolaratzea eta eskolaz kanpoko ekintza osagarriak.

Azken urteotan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, HABEK eta EAEko gainerako herri-erakundeek hainbat ekintza burutu dituzte esandako hiru zutabeak garatzeari begira.

Ekintzaren tamainagatik aipatzekoa da "Ahoz aho, belaunez belaun" izeneko kanpaina. Horren inguruan, HABEK moduluren bat diseinatu eta zabaldu zuen euskaltegietan eta eskolaz kanpoko ekintzak garatu ziren herriz herri, ohikoez gain.

Beraz, FAMILIA PROGRAMA ganoraz garatu behar da, bere osotasunean hartuta eta erakundeen arteko elkarlana sustatuz.

- Sentsibilizazioa: xede-taldeak identifikatu behar dira (bikote osatu berriak, gurasoak, ...) eta bakoitzari dagokion mezua helarazi modu sistematikoan. Sentsibilizazio-ekintzak garatzeko agente nagusiak udaletako euskara-zerbitzuek izan behar dute.

- Eskolaratzea: xede-talde horien beharrak identifikatuta, HABEk euskaltegiekin lankidetzan, talde horientzako eskaintza berezitua ahalbideratu behar du.
- Eskolaz kanpoko ekintza osagarriak: eskolen eta udaletako euskara-zerbitzuen bitartez, guraso eta seme-alabentzako ekintza konpartituak eskaini eta ziurtatu behar dira urte osoan zehar.

Hori horrela, Geroratzearen Jarraipenerako Batzorde-atalak eskatzen die Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari (Euskara Planen Zuzendaritzari) eta HABEri elkarlanean, FAMILIA PROGRAMAREN diseinua, 3-4 urtetan herri-aginte desberdinetan inplementatzeko proposamen zehatza eta ebaluaziorako adierazleak aurkezteko 2001eko ekaina-uztailerako Euskararen Aholku Batzordeari.

3.- Euskaraz bizitzeko egitaraua jarriko da abian 2001. urtean. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Nekazaritza eta Arrantza Saileko Landa Garapenerako Zuzendaritzarekin eta Mendikoirekin elkarlanean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren irakaskuntza (VI.3.1.a), euskalduntze-alfabetatze (VI.3.1.b), familia bidezko jarraipen (VI.3.1.c) eta gune euskaldunenetako (VI.3.2.b) esparruetan aurreikusitako zenbait neurri garatzeko.

Egitarauaren izenak dioten bezalaxe, euskal giroan bizitzeko aukera eskaini nahi zaie euskara ikasten ari diren edo hobetu nahi duten gazteei, bikoteei zein guraso eta euren seme-alabei, horretarako biztanleen %70tik gora euskalduna den herrietako turismo-azpiegiturak aprobetxatuz.

Bestalde, hainbat zerbitzu-enpresa, elkarte eta kultur erakunde proiektura bildu nahi dira gune euskaldunenetako azpiegiturak garatzeko eta turismo-instalazioetako okupazio-tasak eta kontsumoa areagotzeko eta turismo-zerbitzu horien urtarokotasuna gainditzeko.

Gune euskaldunenetako herri horietan kokatutako nekazalturismoko etxeak, landa-etxeak, granja-eskolak eta aterpeak erabiliz, bezero-talde bakoitzarentzat neurrian eginiko egonaldiak eskainiko dira. Hona egonaldi-motak:

- Asteburua edota bi gau – hiru egun: ostiral arratsaldean sartu eta igandean irten, edo iraupen bereko egonaldia baina astegunetan.
- Lan-astea: lau gau – bost egun. Astelehenean sartu eta ostiralean irten, hautatutakok programazioaren arabera.
- Aste osoa: sei gau – zazpi egun. Astelehen goizean sartu eta igandean irten.
- 14 gau – 15 eguneko egonaldia.

Egonaldi horietan, ekintza osagarriak eskainiko zaizkie parte hartzaileei: gidatutako bisitaldiak hiri edo herrigune historikoetara; kultur bisitaldiak museo eta bestelakoetara; ibilaldiak natur-inguruneetan; bisitaldiak nekazaritza eta abeltzaintza ustiategiak; zenbait baserri zein turismo-etxeek eskaintzen dituzten jardueretan parte hartzeko aukera (ogi edo gaztagintza, oihalgintza...).

Aste Santurako egonaldi-pakete batzuk bezeroen esku jartzea aurreikusi da, eta hortik aurrera, apurka-apurka pakete-kopurua handituz joatea.

4.- Familia-jarraipenaren esparruan, halaber, monitore, haur zaindari eta antzeko funtzioak beteko dituzten langileen prestaketa-programa bideratzeko deia giten da.

5.- Batzorde-atalean hausnarketa sakonagoa izateko gai modura, honako hau planteatu da: familiaren eragina hizkuntza-garapenean, guraso erdaldunen partehartzea haurraren hizkuntza-ikasketan edota guraso euskaldunena haur eta gazteen hizkuntzaren garapen eta hobekuntzan.

6.- Familia-jarraipenaren esparrutik kanpo, gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko plangintza trinko eta zehatzaren beharra agertu da, bestalde.

7.- Bukatzeko, euskara-erdaren elkarbizitzari eta hizkuntza bi edo hiruen konpartimentazioa edo banaketa dela eta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bizpahiru txosten enkargatuko ditu 2001. urtean, gai honen inguruko eztabaida eta hausnarketa bideratu ahal izateko Batzorde-atalean zein Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoan.

3.2. Euskararen erabilera.

Hori horrela, Euskararen aldeko Auzogintzaren eta Zerbitzugintzaren Jarraipenerako Batzorde-atalak honako proposamenok egin ditu 2001. urterako.

1.- Euskararen aldeko Auzogintzaren eta Zerbitzugintzaren Batzorde-atalak Justiziako, Osakidetzako eta Eusko Treneko euskara-planak aztertu eta horiei buruzko iritzia emango du planok osatu eta aurkezten zaizkion heinean. Horretarako, egutegi hau aurreikusi da: Justiziako euskara-plana urtarrilaren 15ean aurkeztu eta eztabaidatu da, Osakidetzakoa martxoan eta Eusko Trenekoa apirilean aztertuko dira.

2.- Teknologia berrietan eta, bereziki, Interneten euskararen erabilera bultzatzeko neurriak hartzea eskatzen die Eusko Jaurlaritzako Kultura

Sailari, Industria Sailari eta Hezkuntza Sailari bereziki, xede honekin deialdi bereziak eratuz edota gizartean sortzen diren ekimenak bultzatuz.

Horrez gain, 2000. urtean abian jarri ziren teknologia berrien inguruko proiektuen jarraipena egitea eskatzen du Euskararen aldeko Auzogintzaren eta Zerbitzugintzaren Batzorde-atalak. Hona hemen egitasmoak:

2.1. Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren ildo berrien artean Hizkuntzen Industriaren Garapena.

2.2. HABENET egitasmoa, besteak beste, Interneten bidez euskara ikasi ahal izateko.

2.3. EBPN eta ZTBP planetan agindutakoari jarraituz, euskararen etorkizunean garrantzi handia izango duen kontratu bat bideratzeko tramitazioa egin da, Eusko Jaurlaritzan, hurrengo helburu hauekin:

a) Bertako dei-zentro elebiduna antolatzea

b) Bertoko herri-langileek euren posta elektronikoa ahots bidez euskaraz kudeatzea

c) WEB guneak ingelesetik, frantsesetik eta gaztelaniatik euskarara eta alderantziz itzultzea

2.4. LINUX sistema-eragilea eta inguruko beste hainbat aplikazio euskarara lokalizatzea.

2.5. SAP pakete integralak dokumentuen, pertsonen zein ekonomi eta finantzen kudeaketa egiteko dituen oinarritzko moduluak euskarara lokalizatzea.

2.6. Eusko Jaurlaritzak duen www.euskadi.net web gunean euskara lantzeko tresnak edukiz betetzen jarraitzea.

3.- Azkenik, Euskararen aldeko Auzogintzaren eta Zerbitzugintzaren Batzorde-atalak aisialdiaren inguruan diharduten talde eta elkarteetan euskararen erabilerari buruzko diagnosi zehatza egitea eskatzen die Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzari eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.

Diagnosia egin ondoren eta emaitzen argitan, bi erakundeok, aisialdiaren inguruan dauden eragile nagusiekin batera, talde eta elkarte nagusienetako jardueran euskararen presentzia areagotzeko saio jakinak abian jartzeko lan-egitaraua aurkeztea hobetsiko da. Lan horiek 2001. urtean garatzekoak lirateke.

3.3. Euskararen elikadura.

Komunikabide eta Kulturgintzari buruzko Batzorde-atalak 2001erako proposamenok hainbat gairen inguruan bildu ditu:

- **Irrati-telebista**
- **Hezkuntza**
- **Merkatua egin beharra**
- **Liburutegi nagusia**
- **Pizgarri fiskalak**
- **Sinergia eta interakzioa**
- **Internet**
- **Corpusa**
- **Publizitatea**

Gehien bat gabeziak antzeman ditu, eta esparru horietako eragileen esku uzten du horiek betetzeko egitarau zehatzak proposatzea eta abian jartzea. Hona hemen gai horien inguruan egin duen hausnarketa.

Irrati-telebista

1.- Hizkuntzaren transmisio egokia bermatzeko, bereziki zaindu behar dira hurrei eskaintzen zaizkien edukiak. Horien artean, ikus-entzunezkoek garrantzi berezia dute, gehien maite dituztenak baitira.

Edukiak pentsatu eta egiteko orduan, kalitatea oso gogoan izan behar da; izan ere, euskarazkoek erdarazkoekin lehiatu behar dute eta kalitate gutxikoak izanez gero, hurrek erdal produktuetara joko dute. Horri lotuta, hemen eta euskaraz ekoizturiko produktuek euskaraz pentsatuak eta prestatuak izatearen abantaila dute eta mundu ikuskera euskal mundutik begiratuta eman ahal izatearena.

Hori horrela, bultzatu eta areagotu egin behar da haurrentzako produkzioa. Eduki erakargarriak, kalitatezkoak, lehiakorrak, hizkuntza zaindukoak, euskaraz pentsatuak eta prestatuak, ahal dela, eskaini behar zaizkie haur eta gazteei aisialdirako.

Bestalde, ezin dira ahanzi gaztetxoak. Haurtzarotik gaztaroko aldaketa garrantzi handikoa da hizkuntza-portaerak finkatzeko. Hortaz, programa erakargarriak eskaini behar zaizkie erdal kateetara jo ez dezaten eta euskal telebistaren kontsumitzaile izan daitezen.

Horretarako, EITBk merkatuan egon daitezkeen marrazki bizidun erakargarrienen eta telesailen bikoizketa txukunak egin ditzake eta euskaratutako edo euskaraz egindako filmak eta bideoak eman ditzake (baten batzuk egon badaude).

Hortaz, VI.3.3.e.05: Telebista "Helburu estrategikotzat umeak, gazteak eta euskalduntze-alfabetatzeko ikasleak hartu behar ditu Euskal Telebistak" neurria garatzeari begira, EITBri proposatzen zaio EBNren 2001 urteko garapenerako:

- Haur eta gazteentzako kate tematiko baten tankerako eskaintza egiteari begira, dauden programak indartzea (umeentzako pailazoak, Zine oro), bertako produkzioa bultzatzea, zorrotz jokatzeko hizkuntzaren eta edukien kalitatearekin, lehiakortasuna gogoan izanik. Eta horrekin batera, gazteentzako serie erakargarriak egitea, erdarazko beste kate batzuetakoak bezain erakargarri gerta dakizkiekeenak.

EITBK zehaztu beharko du hori garatzeko zein egitarau zehatz jarriko dituen abian eta zein epetan. Batzorde-atal honen iritziz, uda bitartean egitarauak lan ditzake, uda ostetik aurrera, arian-arian, eskaintzen hasteko.

2.- Bestalde, irrati-telebistaren gaiari dagokionez, Euskal Irrati Telebistaren ikus-entzuleez gain, jende asko da herri honetan beste irrati batzuek entzuten dituenak, bai euskaraz eta bai erdaraz ere. Herri-telebistak ere hor daude. Ahalegina egin behar da Bizkaia irratiak, Ser irratiak berak, Radio Nacionalek, Arrasate telebistak, Teledonostik, Canal Gasteizek... euskal kultur produktuen berri eman dezaten, orain artean baino modu zabalagoan. Izan ere, euskaraz dauden edukiei ahalik eta probetxurik handiena ateratzearren, EITBkoak ez diren medioetako audientzietara ere iritsi beharra baitago.

Euskarazko antzerkiak, zineak, literaturak, eta abar euskaldun jendearen eskura egon behar dute. Horretarako antzerki-zirkuitoak eta hiri ertain eta handietan filmak euskaraz sistematikoki erakusten dituzten zinetokiak beharrezkoak dira.

Hori horrela, Euskal Herrian diharduten medioekin harremanetan jarri eta elkarlan-bideak bilatzen ahalegindu behar da; esaterako, irrati eta telebista bakoitzak euskal produkzioaren berri emateko programarik duen aztertu behar da, eta baldin badute, nolakoak diren, zenbateko maiztasuna duten... Lan hori eginik, komunikabide bakoitzarekin banan-banan harremanetan jarri eta eskaintza sistematikoagoa egiteko, edo orain egiten ez duten eskaintza egiteko proposamena egin behar zaie.

Hortaz, VI.3.3.e.02 "Euskarazko sorkuntza-munduarekiko harremanak zuzendu eta komunikazio-bideak eraiki behar ditu ETB1ek: kultur saioak, gazte-musika, tertulia literarioak, euskal musika, kantua, antzerkia eta abar." neurria garatzeari begira, herri-erakundeetako Kultura sailletako arduradunei (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Sortu eta Zabaltzeko Zuzendaritzari, foru-aldundietako Kultura zuzendaritzari, nagusiki) proposatzen zaie EBPNren 2001 urteko garapenerako:

- Antzerkia, zinea, eta kultur produktuen kontsumoa sustatzeko elkarlan-bideak jorratzea EITBekin ezezik beste komunikabide batzuekin ere.

Neurria garatu ahal izateko, beharrezkoa ikusten da alde zuzenetik aztertzea komunikabideetan zein den euskalgintza eta kultur gintzaren presentzia. Hori horrela Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskatzen zaio azterketa hori bideratzeko, horren argitan egitarau zehatzagoak proposatu ahal izateko.

Hezkuntza

Irakurzaletasunari buruzko kezka azaldu du batzorde-atalak. Argi eta garbi adierazi da euskarak euskarazko irakurle sendoak behar dituela eta horiek sortzeko oinarria eta bide nagusia eskola dela.

Adierazi da, halaber, gaur egun ikastetxe bakoitzean liburutegiak duen edukia eta horren kudeaketa ez dagoela beti bermatua. Askotan, irakasle kezkatu batzuen esku uzten dela irakurzaletasuna bultzatzeko politika garatzea.

Hain zuzen ere, kezka horiek eta beste batzuk ere izanda, Xagux@rrak, *Donatoren Tertulia* izeneko kanpaina ibiltaria dabil ikastetxez ikastetxe eta herriz herri, irakurzaletasuna sustatu asmoz.

Kanpaina hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazteei zuzendua dago, 12 eta 16 urte bitartekoei hain zuzen. Baina proiektua prestatuta dago ere beste bi talde horien beharrei begira:

- Gurasoak: gazte horien gurasoak, seme-alaben heziketaz eta prestakuntzaz arduratzen diren gurasoak.
- Ikastetxeetako, liburutegietako eta, oro har, beste erakunde batzuetako zuzendariak edo arduradunak: ikastetxe, liburutegi eta erakunde horietako estamentuak, irakasleak, dinamizatzailleak, liburuzainak eta gainontzekoak ere kontuan hartzen dira.

Kanpainaren xede orokorrak honako hauek dira:

- Irakurtzeko gogoia piztea: liburuak hartzera eta irakurtzera bultzatzea (liburutegia).
- Irakurketa jolasarekin eta aisialdiarekin lotzea: irakurleek teknika berriak ikasiko dituzte, irakurketa atseginagoa izan dadin, euren gustuko liburuak aukera ditzaten, irakurtzeak bere alde ludikoa ere baduela kontura daitezten eta liburuak hautatzeko irizpideak zein diren ikas dezaten.
- Liburua hobeto ezagutzeko aukera eskaintzea: autoreak, irudigilea, argitaratzailea (bideoa).

Xede bereziak:

- Euskaraz irakurtzeko gogoia sustatzea.
- Irakurtzeko ohitura sustatzeko estrategien berri ematea.
- Ikastetxean nahiz liburutegian irakurtzeko sustapen programak martxan jartzeko argibideak ematea.

Kanpaina honekin, beraz, sentsibilizazio-lana ari da egiten, batik bat. Hori horrela, kanpainaren xede berezietan azaltzen denaren ildotik, Batzorde-atal honek beharrezko ikusten du ikastetxeetako irakasle edota bestelako profesionalen prestakuntzan indar egitea eta ikastetxeetako liburutegiak hornitzea.

Hortaz, "VI.3.3.c.01 Datozen urteotan orain arte baino arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakurzaletasuna bultzatuz, marketina antolatuz, merkatua zabalduz, EITBren, eskolen, liburudenden, liburutegien eta liburu-azoken bidez." neurria garatzeari begira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, Kultura Sailarekin eta Euskal Idazleen eta Euskal Editoreen elkarteekin elkarlanean, proposatzen zaio EBPnren 2001 urteko garapenerako:

- Euskal eskoletako liburutegiak sendotzea; gelako liburutegiak sortzea eta horiek kudeatuko dituzten irakasleak (edota bestelako profesionalak) liburuak zirkularazteko eta irakurzaletasuna bultzatzeko estrategia etengabe eta eguneratuetan trebatzea, udal-liburuegiekin eta bertako liburuzainekin modu koordinatuan lan eginez.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztu beharko du liburutegiok hornitzeko eta horien kudeaketaz eta dinamizazioaz arduratuko diren irakasleak prestatzeko zein egitarau zehatz jarriko dituen abian eta zein epetan. Batzorde-atal honen iritziz, ikasturte honetan hasi beharko luke lehen urratsak ematen.

Merkatua egin beharra

Euskarak nahi eta nahi ez merkatuan sartu behar du, hots, merkatu-hizkuntza bihurtu eta orobat bertan salerosten denaren oinarri izan behar du.

Euskal produkzioari begiratzuz gero, liburuak dira nagusi, azken urteetan prentsa ere tokia irabazten ari den arren. Oro har, produktu horiek eskuratzeko liburutegi jakinetara jotzen dugu gehienok, horiek ziurtatzen baitute euskarazko produktuen aukera zabala aurkituko dugula. Baina hortik kanpo, kioskoetan, liburu eta paper denda txikietan... ez dago ia euskal produkturik. Horrek erakusten digu askotan, errazagoa dela produktu bat egitea merkatuan ongi banatzea baino.

Horrela, euskal prentsaren zabalkundea eta presentzia areagotzeko asmoz, administrazioek dituzten harrera-gunetan (Osakidetzako osasun zentroetan, geltokietan, gizarte etxeetan, kiroldegietan eta abar) euskarazko aldizkariak eta egunkaria eskuragarri izatea eskatu behar zaie erakundeei.

Bestalde, azken urteetan eskolaren bidez eta euskalduntze-alfabetatzearen bidez lortutako euskaldun-kopurua ez dator bat euskal prentsak dituen irakurleekin.

Halaber, argi dago bezeroei eusteko berrikuntza ezinbestekoa dela edozein jardueratan, merkatuak horrelaxe funtzionatzen duelako. Berrikuntzarik ez duten produktuei zoko-usaina darie eta bezeroek baztertu egiten dituzte. Euskal produktuek ez badituzte asebetetzen jendearen beharrak erdal produktuetara pasatzen dira.

Hortaz, VI.3.3.c.02 "Merkatu-zirkuitu desberdinetako produktuak ekoiztu, salmentagune bakoitzean egoki izango direnak: gazte-literatura, bide-liburuak, gidak, komikiak eta abar. Kioskoan dago hutsunerik handiena, eta, besteak beste, oso kokagune aproposa da faszikuluka zabaltzen diren bildumentzat." "VI.3.3.c.01 "Datozen urteotan, orain arte baino arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakurzaletasuna bultzatuz, marketina antolatuz, merkatua zabalduz, EITBren, eskolen, liburudenden, liburutegien eta liburu-azoken bidez" eta VI.3.3.b.03 "Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea

hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu." neurriak garatzeko 2001ean:

- Zirkuitu berriak sortu behar dira eta produkzioa dibertsifikatu behar da. Horri lotuta, komunikabideek, biziraupen errutinarioari eusteaz gain, produktu berriak sortzea bultzatu behar dute.
- Euskarazko prentsaren esparruan, orain artekoa baino ahalegin handiagoa egin behar da irakurleak egiteko.

Horiek horrela, herri-aginteetako Kultura sailei, Industria eta Merkataritza Sailari, Euskal Editoreen Elkarteari, eta prentsa idatziko arduradun eta agente nagusienei proposatzen zaie, bakoitzak bere esparruan, egitarau zehatzak jartzeko abian 2001 urtetik hasita.

Besteak beste, argitaletxe nagusiekin hitz egin daiteke libururik komertzialenak-edo aukeratu eta liburu denda txikietan banatzeko ahalegina egin dezaten; faszikuluka argitaratzeko moduko gaiak zein izan litezkeen azter daiteke; hiri handietako (Paris, Londres...) gidaliburuak euskaraz sortu edo euskaraz jar daitezke nolako harrera duten ikusteko; aldizkari batzuk kioskoetan ikusteko lekuan egoteko modua azter daiteke. Kanpainak antola litezke, publizitatez eta sariez hornituak. Eskoletan eta euskaltegietan euskal prentsa erabiltzera bultzatu litezke ikasleak.

Bestetik interesgarria litzateke sektore berezientzako argitalpen egokituak kaleratzea (gazteentzako aldizkariak, kontsumo arineko produktuak, ...). Horrelako ekimenak aurrera eramanez ahal izateko eta dibertsifikazioari begira, Kultura Sailari proposatzen zaio dirulaguntzagaien artean, euskal produktuen kontsumoa areagotuko duten proposamenak ere onartzea.

Literatura Unibertsala bildumari dagokionez, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak dagokion argitaletxearekin eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin batera, argitaraturiko ehun tituluak ondo zabaltzeko eta egindako inbertsio eta lanari etekina aterako zaiola bermatzeko plana landu behar dute eta abian jarri 2001ean.

Besteak beste, EITBek eskaintzen dituen azpiegiturak baliogarriak izan daitezke egindako lanari etekina ateratzeko (lehiaketetan liburuak oparitu, liburu berrien aurkezpenak, etabar).

Horrekin batera, euskarara egiten diren itzulpenak eta euskal literatura erdaretara itzul dadin sustatu behar da. Egiteko hori Kultura Saileko Ondare Zuzendaritzari, Euskal Idazleen Elkarteari, Euskal Editoreen Elkarteari eta Euskal Itzultzaileen, Zuzentzaileen eta Interpretarien Elkarteari dagokie. Proposatzen zaie hori urtez urte garatzeko egitaraua lantzea.

Liburugintza eta Liburutegi Nagusia

- Euskal liburugintzaren azterketa egitea ezinbestekoa da, orain arte egindakoaren eragina behar bezala neurtzeko eta, etorkizunari begira, horren arabera hartzeko erabaki berriak. Aldez aurretik, liburugintza sektorean ari diren eragile desberdinekin jarri behar da harremanetan eta aintzat hartu haiek diotena. Azterketa kualitatibo horrek, besteak beste, bi atal baneratu beharko lituzke: bata, euskal liburugintzaren "dibertsifikazioaren" edo "estratifikazioaren" azterketa; bestea, erkaketa (geografiaren eta kulturaren ikuspuntutik hurbil dauden herrietan salmentarik handienak dituzten produktuak etab.).

Azterketa hau, Kultura Saileko Ondare Zuzendaritzari egitea eskatzen zaio 2001. urtean, hurrengo ekitaldirako, euskal liburuen sektoreak beharrezkoa duen sendotasuna eta malgutasuna lortzearren, kulturaren zein industriaren ikuspegitik erabakiak eta lan-lerroak finkatu eta egitarauak abian jartzeko.

Bestalde, aspaldian esparruko eragileen artean eztabaidatzen ari den "Euskal Liburutegi Nagusia"ren gaia ere aztertzeko beharra ikusi du batzorde-atalak, besteak beste asko eztabaidatu izanagatik airean dauden zenbait galderari erantzun eta etorkizuneko egitekoak finkatzeko: Zein da liburutegiaren egitekoa gaur egun? Zein formazio behar dute liburuzainek? Liburutegien esparru teknikoari dagokionez, noiz izango da euskarazko katalogo bakarra liburutegi guztien esku? Horretarako, guztirako, behar al da Euskal Liburutegi Nagusirik? Zeintzuk lirateke Liburutegi Nagusiaren eginkizunak: liburugintzarekiko politikak aztertzea, sustapen lanetarako laguntza ematea, ikerketa eta hausnarketa sustatzea, han-hemen banaturik dauden fondo historiko eta interesgarriak leku bakarrean biltzea? Non egon beharko luke kokatuta? Nor litzateke titularra? Zein harreman-mota izango lituzke Euskal Herriko gainerako liburutegiekin? Euskararen normalizazioaren ikuspegitik zein onura ekarriko luke horrek? Ba al da lege-eragozpenik horretarako? Hori dela eta, Kultura Sailari eskatzen zaio horren guztiaren inguruko azterketa egiteko (beste herrietako ereduak aztertuta eta behar den adituekin elkarlanean), eta batzorde-atal honi aurkezteko emaitzak 2001. urtea amaitu baino lehen.

- Euskararen azpiegiturak garatzeari begira, Euskal Liburutegi Nagusiaren sorrera aztertu.

Pizgarri fiskalak

VI.3.3.b.02 *"Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbesteko du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio"* neurria garatzeko, ikusita zerga-zama balazta-indarra dela eta horiek arintzeak lagundu egingo liokeela euskal prentsari mundu moderno eta konkurrentziaz betekoari aurre egiteko eta inguruko merkatuen aurrean lan egiteko, honako hau proposatu du batzorde-atalak:

- Aztertu pizgarri fiskalak eskain dakizkiekeen euskalgintzaren inguruan lan egiten duten enpresei (prentsako enpresei, besteak beste) ezinbesteko dituzten inbertsioak egiteko.

Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean emandako xedapenen artean honako hau zegoen:

4. ebazpena: *"Eusko Legebiltzar honen iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoan, euskararen erabilera normalizatzeko legeria garatu egin behar da euskararen erabilera normalizatzeko urratsak areagotu daitezten gunerik euskaldunenetan, hedabideetan, Euskal Herrian dagoen Estatuaren Administrazioan, esparru sozioekonomikoan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan, kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak bermatzen, **hobari fiskaletan** zein toki mailako herri-erakundeetan.*

Hori horrela, EABko Lege Garapeneko Batzorde-atala aztertzen ari da hobari fiskalen gaia eta bukatzeaz du horren inguruko txostena. Beraz, lanak ez bikoiztearren, batzorde-atal horren esku uzten da gai honen garapena eta, hala badagokio, behar diren urratsak ematearen ardura. Nolanahi ere, Lege Garapeneko Batzorde-atalari hemen azalduko kezkaren berri emango zaio.

Sinergia eta interakzioa

EBPNk VI.3.3.g.02 *"Euskaraz bakarrik jaso daitekeen hori irrikagarri egiten ahalegindu eta horren berri eman erdaldunei ere; hau da, euskal kulturaren emaitzak barreiatu, euskaraz ez dakienak zerbait galtzen duen irudipena izan dezan. Erdarazkoei aurrea hartu"* neurrian dioenari jarraiki, batzorde-atalak berretsi du komeni dela erdal munduko komunikabideek euskarazko berrien garraiatzaile izatea, erdaldunek jakin dezaten zer egiten den. Izan ere, besteak beste, erdi galduan dauden euskaldunak erakartzeko eta euskararen prestigioa jasotzeko modua izan baitaiteke.

Gogoeta horrek dakar euskaraz diharduten komunikabideek informazio-politika egokia diseinatzea albiste-agentziek berri horiek jaso eta zabal ditzaten.

- Euskal liburugintzaren, literaturgintzaren, musikaren eta kulturgintzaren inguruan sortzen diren albisteak gaztelaniazko hedabideetara ere zabaldu behar dira, erdal komunitateak (hala nola euskarazko programazioak jarraitzen ez duten euskaldunek, ez baitira hain gutxi) euskal kultur ekoizpenen berri izan dezan.

Eragile bakoitzak egin behar duenez hori, batzorde-atal honek ezinezkoa du agenteen zerrenda itxia ematea. Hortaz, gomendioa zabalduko du dituen aukerez baliatuz. EiTbri, bestalde, berriaz jakinaraziko zaio gomendio hau, bere esparruan gauza dezan.

Internet

Auzogintza eta Zerbitzugintzaren Batzorde-atalean ere, hemen bezalaxe, teknologia berrietan eta batik bat Interneten euskararen presentzia sendoa segurtatzeko bideak sustatu behar diren inguruko kezka azaldu da.

Izan ere, medio berri hau izugarri ari da garatzen eta euskarak ezin du hortik kanpo geratu, erabiltzaileei lagundu egin behar zaie euskaraz zer dagoen jakiten eta bertara erraz iristen. Oraingoz, euskarak Interneten presentzia ahula eta sakabanatua du.

Horren ildotik, batzorde-atal honek bi proposamenok ditu 2001 urteari begira:

- Interneten euskarazko edukiak edo guneak garatzea.
- Interneten euskaraz dauden edukiak eta abian jartzen diren ekimenak aurkitzeko modua jakinarazi erabiltzaileei (esku-orriak, iragarkiak, ...)

2001 urtean teknologia berrietan eta, bereziki, Interneten euskararen erabilera bultzatzeko neurriak hartzea eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, bereziki, dauden ekimenak ezagutaraziz eta ekimen berrietarako deialdia eratuz (euskarazko atariak etab. sustatzeko) edota gizartean sortzen diren ekimenak (bilatzaileak, web guneak...) bultzatuz.

Argibide gisa, esan behar, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Auzogintza eta Zerbitzugintzaren Batzorde-atalaren eskaria ikusita, Interneten gazteentzako atariak sustatzeko laguntza-lerro berezia eratzeari heldu ziola 2000. urtean, bai eta dirulaguntza-deialdia izan zitekeenaren lehen zirriborroa egiteari ere.

Laguntza-deialdi hori abian jartzeko prozedurari ekin zitzaionean, ikusi zen ezinezkoa izango zela urtea amaitu baino lehen prozedura amaitu ahal izatea. Hortaz, Euskara sustatu, zabaldu edota normalizatzeko dirulaguntza-deialdiari 40 milioitako diru-ekarpen gehigarria egin zitzaion. Izan ere, deialdi horretan lehendik aurreikusitako kontzeptu batek har zitzakeenez teknologia berrietan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoak "euskaraz egindako materialak sustatzeko eta bideragarriago egiteko ekimenak edo ekintza programak..." kontzeptu horretara bideratu zen diru-kopuru gehigarri hori. Horrela, deialdi horretan, guztira, 134.000.000 PTA bideratu dira.

Ohi denez, deialdi horren moldaketa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ezezik, teknologia berrien esparruan diharduten enpresa eta elkarteei banan-banan eman zitzairen proiektuak aurkezteko aukeraren berri.

Corpusa

Esparru honetako proposamena honako hau da:

- Toponimiaren eta Terminologia alorrean EAEn egiten diren lan guztien zabalkundea eta gizarteratzea areagotu, horretarako egokiak izan daitezkeen baliabideak jarritz.

Egindako ahaleginen zabalkundeak eta gizarteratzeak duen garrantziaz jabetuta, eta orain arte egindakoak gutxietsi gabe, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eta Euskaltzaindiari, bereziki, 2001. urtean horretan indar egiteko eskatzen zaie.

Publizitatea

VI.3.3.a.04 "Hizkuntza-paisaia ugaldtu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu" neurrirako, honako proposamen hau egiten dio batzorde-atalak Merkataritza eta Industria Sailari:

- Hizkuntza-paisaia euskalduntzeko, hori ahalbidetzen duten euskarrietan euskararen presentzia areagotzeko neurriak hartu eta laguntzak eskaintzea.

Bestalde, hizkuntza-irizpideak ezartzearen ildotik (ikus euskaraplanak), beste proposamen hau egiten zaie udalei:

- Aisialdi eskaintzako publizitatea (gimnasia, dantza-ikastaro, musika...) bereziki gaean artean duen zabalkundea kontuan, euskaraz ere egitea.

4. Corpus plangintza

2000ko lan-egitarauak zioenari jarraiki, Toponimiako Batzorde-atal Bereziak egindakoaren berri emango da, bai eta Terminologiako Batzorde Berrikuslearen eta Hizkuntzen Industriaren inguruko proiektuak azalduko dira, labur-labur.

4.1. Toponimiako Batzorde-atal Berezia

Toponimiako Batzorde-atal Bereziak 2000-2001 Jarduketa-plana onartu du eta garatzen ari da. Honako hauek dira bertan jasotako helburu eta egiteko nagusiak:

Toponimia Zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoan sortzea. Horren egitekoak: toponimia jasotzea; toponimoen datutegia gaurkotu eta mantentzea; toponimia dagokion kartografian txertatzea; toponimia normalizatzea (arautzea); toponimia ofizialtzea; toponimia zabaltzea; aholkularitza ematea eta kontsultei erantzutea; toponimiaren erabileraren jarraipena eta kontrola.

Aldez aurretiko oinarri-lanak:

- Toponimia-inbentarioen metodologia: toponimoak jasotzeko metodologi eskuliburua. (2001)
- Toponimia-terminologiaren hiztegitxoa. (2001)
- Geografia-toponimiaren hiztegitxoa. (2001)
- Trebakuntza espezializatuko planak: beste toponimia-zerbitzu batzuek betetzen dituzten funtzioen eta horiek burutzeko moduaren azterketan oinarritzen den prestakuntza teoriko-praktikoa; planak moldatu, jarraitu, kontrolatu eta ebaluatzeko prestakuntza; hizkuntza-normalizazio, nazioarteko legeria eta abarren funtsezko kontzeptuak; toponimia normalizatu eta ofizialtzeari buruz indarrean dagoen legeria; zabalkunde, publizitate eta abarren inguruko kanpainei buruzko funtsezko ezagutzak eta toponimiara egokitzen jakitea; hizkuntza-ikastaroak; toponimia jaso, tratatu eta izendatzeko prozesuan parte hartuko duten guztientzako prestakuntza.

Oinarrizko erreferentzia-lanak:

- Toponimiari buruzko lanen inbentarioa. (2001)
- Dokumentazio-iturrien eta iturri kartografikoen inbentarioa. (2001)

Lan osagarriak:

- Toponimiaren erabiltzaile-sortzaileen direktorioa. (2001)

Toponimia-bilketa:

- Bizkaiko toponimiaren berrikuspena eta zuzenketa: HPSko datutegian dagoen Bizkaiko Toponimia berrikusi, zuzendu eta osotu (2002).
- Arabako Hego-Mendebaldeko toponimia berrikustea: hitzarmena egin da nahi da HPSren, Arabako Foru Aldundiaren, EUDELen eta Euskaltzaindiaren artean.
- Ipar Euskal Herriko toponimia jaso, gorde eta ustiatzeko egitasmoa (2001-02).
- Toponimia jasotzeko fitxa-eredua sortu eta zabaltzea: aurrerantzean egingo diren toponimia-ikerketetako datuak HPSko datutegian era errazean txertatzeko modua izateko (2001).
- Datutegia gaurkotu eta mantentzea.
- Toponimia-datutegia berrikusi, zuzendu eta optimizatzea.
- Bizkaiko toponimiaren koordenatu geografikoak eskuratu eta datutegian sartzea.

Toponimia dagokion kartografian txertatzea:

- Kartografia toponimiarekin eskaini ahal izateko sistema finkatu eta abian jartzea.

Toponimia arautzea:

- Ortografia-zeinuen erabilera arautzea.

Toponimia zabaltzea:

- Interneten bidez egindako zabalkundea.
- Argitalpenak: toponimiaren zenbait alderdi teoriko nahiz praktikori buruzkoak kaleratu eta jendearen toponimiarekiko interesa piztu.
- Kontzientziazio-kanpainak: administrazioa, talde bereziak eta herritarrak kontzientziatzeko.

Toponimiari buruzko aholkularitza eta kontsultak:

- Azpiegitura eta prozedura egokia sortzea.
- Kanpoko aholkularitza eduki ahal izateko bideak eta prozedura egokia jartzea.

Honi erantsirik ageri bada ere jarduketa-plan horren testua, aipatu behar Toponimia-bilketako bi proiektu bereiz daitezkeela besteetatik.

Batetik, esan bezala, Bizkaiko toponimia berrikusteko eta zuzentzeko lana jarri da abian. Faseok ditu lanak: artxiboen hustuketa; dokumentuen aukeraketa; iturri kartografikoen grabazioa; landa-lana (1/5000 eskalara); grabazioa; normalizazio geografikoa eta normalizazio linguistikoa.

Bestetik, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako 1/5000 eskalako toponimiaren bilketa egiteko lehenengo urratsak eman dira 2000. urtean. Toponimoen fitxetan generikoak, deskripzio-datuak, erreferentziak eta gainerako oharrak txertatuko dira. Toponimoen normalizazio-geografikoa eta linguistikoa egingo da (euskarazko eta frantseseko bertsioak emango dira) eta informazio guztia grabatuko da.

Horretaz gain, Toponimiako Batzorde-atal Bereziak honako txostenok egin eta onartu ditu:

- Toponimoen osagai generikoen tratamenduari buruzko eztabaida-txostena.
- Toponimiako oinarrizko kontzeptuen zerrenda eta horien definizioa.
- Toponimoak ofizialtzeko prozedura finkatzeko proposamena.
- Sakabanaturik dauden izen ofizialen zerrenda.

Aipagarria da, halaber, Québec-eko Gobernuarekin izenpetutako hitzarmenaren baitan, Toponimiari buruzko mintegia egin dela, gai horretan aditu direnentzat.

Bestalde, Toponimia datubankua erabiltzaileen esku jarri da euskadi.net/euskara web-gunean. Datubanku horrek 564.000 toponimo ditu, horietatik 117.000 toponimo normalizatutzat jotzen dira. Datutegia SQL-Windows lengoaiaren sistematik Visual Basic lengoiara migratzeko kontratua ere izenpetu da.

Azkenik, Toponimia xehea normalizatzeko arauak bateratzen ari da HPS Euskaltzaindiarekin.

4.2. Terminologiako Batzorde Berrikuslea

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren VI.3.3.a atalean "Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea", besteak beste, honako hau dago jasota: "*Hiztegi batua amaitu eta argitaratu. Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako*".

Horren ildotik, hizkuntzaren modernizazioa erdiesteko terminologi lana antolatu, koordinatu eta kudeatzeko bi egitasmo ari da lantzen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: Euskararen terminologi banku ofiziala sortzea eta Terminologi Batzorde Berrikuslea eratzea, Euskararen Aholku Batzordearen baitan, Toponimiarako Batzorde-atal Berezia egituratuta dagoen antzera.

87az gero herri-agintek diruz lagundutako EUSKALTERM terminologi bankua UZEIk hainbat urtetarako Eusko Jaurlaritzari lagatzea da egitasmoa. EUSKALTERM Administrazioaren bankua izanda, horrek ikerlarien (publiko zein pribatuak) esku jarriko du tresna hori, hala behar izanez gero, arazorik gabe eta doan. Nahiz eta, egun, euskaraz egiten den terminologi lana deskriptiboa izan eta hainbat urtetan ez den arauemailea izango, Administrazioak terminologi banku ofiziala sortuz lan handia egin dezake terminologiaren bateratasunaren alde (terminologi banku ofizial askoren antzera: Eurodicautom, Termium, BTERM...), Terminologi Batzorde Berrikusleak hobetsitako eta gomendatutako terminologiak zabalduz eta horien erabileraren jarraipena gertutik eginez.

Bestalde, behin baino gehiagotan aipatu izan da terminologiari buruz egindako biltzarretan, euskarazko terminologiari dagokionez, arlo horretan erabakiak hartuko dituen batzorde bat sortzeko premia (azken aldian, 1997an, Donostian egindako Nazioarteko Terminologia Biltzarrean). Batzorde horrek kide iraunkor gisa, herri-aginteetako ordezkariak, Euskaltzaindiko eta UZEIko ordezkariak izango ditu, besteak beste. Bestalde, batzorde teknikoak izango ditu, lan bakoitzerako izendatuak, eremuko adituez osaturik.

Batzordearen egitekoak izango dira, Terminologi alorrean dauden lehenetsiak finkatzea; lan-proposamenak egitea; terminologi lanerako irizpideak ematea eta termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia aukeratzea; landutako terminologi lanei onespina ematea (lan horien zabalkundea egiten denean Terminologi Batzorde Berrikuslearen marka edo zigilua jarriko zaie); finkatutako terminologiak zabaltzeko bideak proposatzea eta terminologia horien erabilera gomendatzea.

4.3. Hizkuntzen Industrien garapena

2000. urtean honako proiektuok garatu dira:

- Eusko Jaurlaritzaren 2001-2004 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean Hizkuntzen Industriak Garatzeko ildo berria onartu da.
- Internet bidez euskara ikasi ahal izateko HABENET egitasmoa garatu da.
- Euskarazko ahotsa ezagutu eta sintetizatzen zein itzulpen gintza automatikoaren teknologietan oinarriturik, Eusko Jaurlaritzako dei-zentro elebiduna antolatzen, bertoko herri-langileek euren posta elektronikoa ahots bidez euskaraz kudeatzeko zein WEB guneak ingelesetik, frantsesetik eta gaztelaniatik euskarara eta alderantziz itzultzeko kontratua bideratzeko lehen urratsak eman dira.
- LYNIX sistema-eragilea eta inguruko beste hainbat aplikazio euskarara lokalizatzeko urratsak eman dira.
- Dokumentuen, pertsonen zein ekonomi eta finantzen kudeaketa egiteko SAP pakete integralak euskarara lokalizatzeko aurrelanak burutu dira.
- www.euskadinet/euskara web-gunea erabiltzaileen esku jarri da. Menuak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez daude; bertan ageri den dokumentazioa ere hizkuntza horietan ageri da, beti ez bada ere.
- Web-gune hori eguneratuz joan da, esate baterako, euskara lantzeko tresnak atalean Xuxen zuzentzaile ortografikoa eta Elhuyar hiztegia eguneratu dira, bai eta sinonimoen eta antonimoen hiztegia eta 3000 hiztegia ere. Bestalde, Morrisen hiztegia (ingeleza-euskara/euskara-ingeleza), Harluxet hiztegi entziklopedikoa eta EDBL – Euskararen Datu Base Lexikala on-line jartzeari begira, eskubideak erosteko kontratuak izenpetu dira.
- Hiru urtera begira euskara-plana egin duten 47 enpresari kontsulta eginda, euskarara lokalizatzeko aplikazioen zerrenda egin da.

5. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako eta Iparraldeko erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzarako ekimenak.

Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak, 1999ko abenduaren 10eko bilkuran, Euskara Biziberritzeko Plan Orokorra onetsi zuen Jaurlaritzak hartaz egindako berriematea eztabaidatu ondoren, eta gainera beste ebazpen batzuk ere onetsi zituen; haietatik, hona hirugarren ebazpenak dioena:

3. ebazpena

Legegintzaldi honetarako koalizio-akordioak dioenez, "Nafarroako eta Iparraldeko erakunde pribatuekin eta publikoekin lankidetzan euskararen sustapena bultzatzea" eskatu nahi dio Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari. Hain zuzen ere, horretarako zeintzuk urrats eman dituen eta eman asmo dituen urtebeteko epean Legebiltzar honi adieraztea eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari.

Hori horrela, 1999. eta 2000. urteetan emandako urratsen berri zehatzagoa izateko, txostentxo batean bildu dira Eusko Jaurlaritzak Nafarroako eta Iparraldeko erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan urte horretan garatutako ekimenak eta egitarau zehatzak.

Bestalde, Ipar Euskal Herriko Hizkuntza Antolamendua eta euskara-azpiegiturak sustatzeko egitasmoak garatzeko legezko aukerak eta hitzarmen-bidea aztertu da. Horretarako, txosten juridikoa egin du Kultura Saileko Lege Kabineteak. Bertan jasotakoaren arabera, legez bada aukerarik erakunde publikoekin hitzarmenak sinatzeko; eta erakunde pribatuen kasuan, Eusko Jaurlaritzak sustapen-politika egin dezake, kaleratu ohi dituen dirulaguntza-deialdien bitartez.

6. Lege-garapeneko hainbat proposamen.

Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak, 1999ko abenduaren 10eko bilkuran, Euskara Biziberritzeko Plan Orokorra onetsi zuen Jaurlaritzak hartaz egindako berriematea eztabaidatu ondoren, eta gainera beste ebazpen batzuk ere onetsi zituen; haietatik honako hau ekarri nahi genuke hona:

4. ebazpena. "Eusko Legebiltzar honen iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoan, euskararen erabilera normalizatzeko legeria garatu egin behar da euskararen erabilera normalizatzeko urratsak areagotu daitezzen gunerik euskaldunenetan, hedabideetan, Euskal Herrian dagoen Estatuaren Administrazioan, esparru sozioekonomikoan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan, kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak bermatzen, hobari fiskaletan zein toki mailako herri-erakundeetan.

Hortaz, Legebiltzar honek Euskararen Aholku Batzordeari eskatzen dio Lege Garapenerako Batzorde-atalaren lana urtebeteko epean amaitu dezala, ondoren emaitza Eusko Legebiltzarrari aurkezteko."

Bestalde, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren VIII. idatz-zatian ondokoa ezartzen da:

"Eusko Jaurlaritzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu ostean, litekeena da lehenetsitako helburu eta egitasmoak gauzatzeko nolabaiteko lege-garapenik behar izatea. Beraz, lege-gaietan adituak diren kideez osatutako batzorde-atala antolatu beharko litzateke Euskararen Aholku Batzordearen baitan: Lege Garapeneko Batzorde-atala."

Lege-garapeneko Batzorde-atalak egindako txostenak eta bertako emaitzek Eusko Legebiltzarrak adierazitako esparruei erantzuten diote; beraz, ez dituzte agortzen azterketa zabalagoa izanez gero egin ahal izango liratekeen proposamenak. Hau da, Eusko Legebiltzarraren ebazpenak dioena betetzera bideratu da lana, hain zuzen ere zazpi arlo aztertu dira, eta lantalde honen hurrengo saioetan gainerako esparruak aztertu eta landutakoak sakontzeko modua egin beharko da.

Eranskin gisa ageri den txostenean ikus daitekeenez, honako esparru horiek jorratu dira:

- Hedabideak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak
- Gizartea eta ekonomia, eta kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak.
- Zerga-hobariak
- Gunerik euskaldunenak eta toki-mailako herri-erakundeak.
- Estatuaren Administrazioaren hizkuntza-normalkuntza.

Hona, labur-labur, txostenean jasotakoa

Txostenaren egiturari eta edukiei dagokienez, ezinbestekotzat jo da, txostenaren hasiera gisa hizkuntza-aniztasunaren oinarriak antolatu dituzten abiaburu juridikoak labur-labur aztertzea. Konstituzioaren 3. artikulua eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Estatutuaren 6. artikulua dira horretarako hartu beharreko ardatz nagusiak (II. titulua).

Jarraian, hizkuntza gaietako eskumenen banaketa aztertu da, horren ondorioz, lurralde-administrazioek eta erakundeek dituzten ahalgoak eta legegintzaren eta betearazpenaren mailako eginkizunak azaltzeko (III titulua).

Ondoren, Legebiltzarreko erabakian aipatzen diren zortzi esparruak jorratu dira. Esparru hauetan araubide juridikoa nolakoa den aztertu du batzorde-atalak, eta ahultzat jotako alderdiak nabarmendu dira. Arreta berezia jarri da Autonomia Erkidegoak arautu ahal dituen arau-hutsuneak dituztenetan.

Azterketa horren emaitza gisa, 36 ondorio nagusitara iritsi da Lege Garapenerako Batzorde-atala. Hona horietan jasotako ideia nagusiak:

- Autonomia-erakundeei dagokie, Konstituzioak eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuak arlokako gaietarako zehazten duten eskumen-banaketaren kalterik gabe, euskararen ofizialtasunaren ondorio juridikoen lege-antolamendua.
- Hainbat arlo garrantzitsu euskararen araubide juridikoa finkatuko duen araudirik gabe daudela nabarmendu ahal izan da. Horrela aipa ditzakegu adibidez, komunikabide arloan, toki-telebista, komunikabide digitalak edo kable bidezko telebista eta irratia kasuak. Txostenean argi dago Euskal Autonomia Erkidegoa dela eremu hauetan euskararen araubidea ezarri behar duena, bai emanaldietako hizkuntzaren erabilpen-kopuruak finkatuz, bai emakidak esleitzeko irizpideetan euskararen erabilpena zehaztuz.
- Antzerakoa esaten da txostenean kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen bermeari eta eremu sozio-ekonomikoari dagokienez. Horrela kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak arautzeko Eusko Legebiltzarrak onartutako lege bat behar dela dio. Legez bermatu beharko litzateke, halaber, euskal administrazioek beren menpe dituzten enpresa eta sozietate publikoek eta bai zerbitzu publikoen emakidadun direnek ere, administrazio publikoei herritarrekiko dagozkien hizkuntza betebeharrak berberak izatea, bakoitzak bere eremu soziolinguistikoan. Legez eska dakieke, baita ere, dirulaguntzaren bat jasotzen dituzten enpresa pribatuei bi hizkuntza ofizialen erabilpenean eta hizkuntza-paisaian (errotuluak, oharrak,

jakinarazpenak, publizitatea...), herritarren eta kontsumitzaile guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea.

- Hizkuntza-normalkuntzari laguntzeko pizgarri fiskalak onar daitezke lege bidez, edo baita lurralde historikoetako foru-arauen bidez ere. Tokian tokiko zerga-ordainketarako pizgarri fiskalei dagokienez, nahiz eta Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Legean lege-oinarri nahikoa izan horretarako, udal ordenantza fiskalak arlo hori arautzeko nahiko ez direla esanez etorri diren bata bestearen ondoren epai-erabakiak, arazo bat sortu dute. Beraz, egoera hori gainditzeko, Eusko Legebiltzarrak lege bat onartu behar du, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta toki-korporazioek, bakoitzak bere eskumenen eremuan, euskararen erabilpena sustatu behar dutela esanez, eta, ondorioz, euskararen erabilpena normaltzeko eta bultzatzeko egintzetarako hobari eta salbuespen fiskalak ezar ditzaten.
- Eusko Legebiltzarrak arau ditzake, hizkuntza-normalkuntzarako eskumenaz baliatuz, euskararen ofizialtasunak Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen Estatuako administrazioan sortutako ondorio juridikoak. Hala ere, Estatuari dagokio, bere barneko antolaketa gauzatzerakoan, Euskal Autonomia Erkidegoak ezarritako ofizialtasunaren legezko araugintza praktikan jartzeko antolamendua.
- Gune euskaldunenek bertako jardueretan euskara toki-administrazioen jardunean malgutu egin daiteke erkidegoko bi hizkuntza ofizialak biak batera erabiltzeko Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Legean jasotako araubide orokorra. Izan ere, hizkuntza biak ofizialak izateak ez du esan nahi administrazio publiko guztietan nahitaezkoa denik bi hizkuntza ofizialetan bertako jarduera guztiak idaztea, eta hala onartu du jurisprudentziak berak ere. Aukeran dago, bada, gune euskaldunenek bertako jardueretan euskara bakarrik erabiltzeko oinarri nahikorik emango duen legea onartzea, bai barruko zein kanpoko jardueratarako. Lege horren arabera, gaitasuna emango zaie udalei euskara bakarrik erabiltzeko, bakoitzaren testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta hala egitea erabakitzen badute. Euskara bakarrik erabiltzea ez da gaztelania erabiltzea baztertu edo debekatzea. Konstituzioak eta Euskal Autonomia Estatutuak zehazten duten hizkuntzen ofizialkidetasunaren araubidean bermatzen da herritarrek berek aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea; beraz, eskubide horri zor zaion errespetua euskararen araubide juridikoaren ezaugarri baztertu ezina da edozein administrazio publikotan.

7. Herri-aginteen arteko koordinazioa hobetzeko ekimenak.

Atal honi dagokionez ere, Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10eko Osoko Bilkuran harturiko ebazpenak izan dira kontuan, bosgarren ebazpena hain zuzen.

5. ebazpena

Eusko Legebiltzarrak Herri Agintek Koordinatzeko Batzordea eraberritu eta indartu dezala eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak jarri dizkion betebeharrak urtebeteko epean burutu ditzan.

Halaber, Herri Agintek Koordinatzeko Batzordearen egitekoen artean beste egiteko bat gehiago jasotzea ere eskatzen dio, hots, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia EAEko hiriburuetan garatzeko oinarrizko irizpideak aztertzea.

Koordinazio-ekimenak bideratzeko, 2001eko martxoaren 14an Herri Agintek Koordinatzeko Batzordea eratu da ostera.

7.1. Herri Agintek Koordinatzeko Batzordearen osakera.

- Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Batzordeburua
- HUISEko ordezkaria
- Ogasun eta Herri Administrazio Saileko ordezkaria
- Gasteizko Udaleko ordezkaria
- Donostiako Udaleko ordezkaria
- Arabako Foru Aldundiko ordezkaria
- Bilboko Udaleko ordezkaria
- Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria
- Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria
- HAKOBAko idazkaria

7.2. HAKOBARI aurkeztutako proposamenak.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatuta, honako gaien inguruko proposamenak aurkeztu zaizkio HAKOBARI:

1. Euskara-aurrekontuei buruzko azterketak
 - 1.1. Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta hiriburuen euskara-aurrekontuen azterketaren emaitzak (2000. urtekoak)
 - 1.2. 5000 biztanle baino gehiagoko EAEko udalerrien euskara-aurrekontuen azterketen emaitzak (1999. urtekoak)
 - 1.3. 5000 biztanle baino gehiagoko EAEko udalerrien euskara-aurrekontuen azterketen emaitzak (1999. urtekoak)

2. Herri-aginteen arteko koordinazioa hobetzeko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak finkatzen dituen arloak
 - 2.1. Itzulpen-politika bateratzeko proposamena
 - 2.2. Hizkuntza-irizpideak
 - 2.2.1. Zerbitzu interaktiboetan hizkuntza-irizpideak bateratzeko proposamena
 - 2.2.2. Argitalpenetan hizkuntza-irizpideak bateratzeko proposamenak
 - 2.2.3. Dirulaguntza-deialdietan hizkuntza-irizpideak bateratzeko proposamena.
 - 2.2.4. Erosketa- eta kontratazio-administratiboetan hizkuntza-irizpideak bateratzeko proposamena.
3. Langileen etengabeko prestakuntza.
4. Funtzionarioen euskalduntze-alfabetatzea.
5. Euskararen sustapena bateratzeko proposamena: azpiegitura estrategikoak eta sustatzekoak.
6. Corpus-plangintza eta Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak.

Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak izandako bilera horretan erabaki zen apirilean bertan egingo den hurrengo bilerarako, atalez atal aurkeztutako diagnosiak, hala badagokio, osatu eta proposamenen inguruko ekarpenak eramango direla.

7.3. Azpiegituren sustapena.

Atal honetan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik bultzatutako dirulaguntza-deialdiak eta lankidetzak-hitzarmen esanguratsuenak daude jasota. Banan banako azalpenean ikus daitekeenez, euskararen sustapenean urrats sendoak eman dira, orain arteko diru-baliabideak nabarmen gehituz.

7.3.1. Euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko, pertsona juridiko pribatuei dirulaguntzak emateko deialdia.

•

Euskalgintza izenaz ezaguna den deialdi hori indartu egin da, izan diren eskaera guztiak asebetetzerik izan ez bada ere: 134.000.000 pezeta banatu dira eta 204 izan dira eskariak. Iazko deialdiaren aldean, 54.000.000 pta gehiago banatu dira.

Guztirako kopurua honela banatu da:

- a) Euskararen ondarea (kantuak, bertsoak, euskalkiak, etab.) jaso, gorde eta gizarteratzeko egitarauetan 16.721.666 pta

- b) Gazteentzako euskaraz egindako materialak (euskarazko bideoak, jokoak, softwareak, bideojokoak, joko hezigariak...) sustatzeko eta bideragarriago egiteko ekimenak edo ekintza programak bultzatzeko 44.466.920 pta
- c) Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitarauak 18.504.010 pta
- d) Euskararen erabilera aisian, haur eta gazteen hizkuntza gaitasuna sendotzeko antolaturiko egitarauak, monitoreen prestakuntza, materiale-sorkuntza, produktu konkretuen gaineko bideragarritasun azterketak, Euskararen historian edo hizkuntzari loturiko hainbat eremutan izen handia duten pertsonaiak omentzeko edo bestelako ospakizunak antolatzeko jarduerak, etab 50.811.412 pta
- e) Zabalkunde handiko biltzarretan, jardunaldietan eta ospakizun berezietan euskararen presentzia bermatzeko ekimenetan 4.782.747 pta

Guztira 110 onuradun izan dira eta 199 proiektu diruz lagundu dira.

7.3.2. Komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskarazko komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntza-deialdia.

2000 urtean deialdiak aldaketa batzuk izan ditu 1999 ekitaldiaren aldean. Aurreko urtean euskarazko prentsa idatzia zen deialdiaren helburua. Aurten, 2000 urtean, komunikabide guztiak sartu dira: eguneroko prentsa, hau da, astekariak, haur eta gazte aldizkariak, toki-aldizkariak, bestelako aldizkariak; irratiak; euskarazko herri-telebistak eta multimedia taldeak sendotzeko edota euskarazko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sustatzeko egitasmoak.

Guztira 622.000.000 pta banatu dira. 2000rako 572.000.000 eta 2001erako 50.000.000 pta. Euskarazko herri-telebisten kasuan, dirulaguntzak bi urtetarako izan dira.

Deialdian aurten iaz baino 349.000.000 pta gehiago banatu dira.

Dirulaguntzak eskatu eta jaso ahal izan dituzte:

- Euskarazko irrati eta herri-telebisten kasuan: pertsona juridiko publikoek edo pribatuek.
- Gainerako modalitateetan: pertsona juridiko pribatuek bakarrik.

Banaketa era honetara egin da:

- A. Eguneroko prentsarako 275.000.000 pta
- B. Astekarietarako 77.000.000 pta
- C. Haur eta gazte aldizkarietarako 17.783.452 pta
- D. Bestelako aldizkarietarako 54.070.284 pta

E. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-aldizkarietarako 46.592.594 pta
F. Irratietarako 45.079.196 pta
G. Euskarazko herri-telebistetarako 2000.urterako 34.094.995 pta eta 2001erako 50.000.000

Multimedia taldeak sendotzeko edota euskarazko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sendotzeko egitasmoetarako: 22.379.479 pta

Guztira, 52 onuradun izan dira eta 86 egitasmo diruz lagundu dira.

7.3.3. Hizkuntza-normalkuntzako zerbitzuak eratu edo sendotzeko eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia entitate edo entearen esparruan garatzeko Euskadiko Autonomia Erkidegoko toki-entitateei eta haiei lotutako edo haien menpeko entitateei dirulaguntzak emateko deialdia.

Deialdi hau indartu egin da dirutan aurreko urtekoarekiko, 100.000.000 pezeta jarri baitira. Horretaz baliauz, 2000. urtean, euskara zerbitzua sortu edo indartu da 9 erakundeetan, horrela, 53 udalei behar duten zerbitzua eskainiz.

Halaber, udalerrri mailan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko 49 erakundek aurkeztu dituzten egitasmoak babestu dira deialdi honen bitartez.

7.3.4. Entitate pribatuetan euskara-planak garatzeko esleitutako dirulaguntzak emateko deialdia.

Bi moldaketa nabarmen izan ditu deialdi honek aurreko urtekoarekiko. Batetik, diru-igoera, aurtengoan, hain zuzen, 200.000.000 pezeta. Diru-kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2000ko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako kreditutik (110.000.000 pezeta) eta 2001erako ezarritako konpromiso kreditutik (90.000.000 pezeta) hartu da.

Bestetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Industria eta Lan Sailekin batera jarri du indarrean deialdi hau.

Deialdiari esker, 49 enpresek egin dituzte hiru urtera begirako euskara-planak.

7.3.5. Azpiegitura estrategikoekin izenpetutako hitzarmenak.

Euskararen azpiegitura estrategikoei lanerako baliabide duinak eskaintzeko ahalegin berezia egin du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, bereziki 2000. urtean, euskararen normalkuntza

bizkortuko duen ikerketa-politikari bultzada berezia emanaz. Hain zuzen ere, lehen aldiz, urte anitzerako hitzarmenak sinatu dira Labayru Ikastegiarekin, Euskal Idazleen Elkartearekin eta Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartearekin, aurrez Euskaltzaindiarekin zein UZEIrekin sinatu ohi ziren hitzarmenen eredia oinarri harturik.

2000ko martxoaren 8an, batetik, **Euskaltzaindiaren** eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako foru-aldundien artean izenpetu zen bost urterako hitzarmenaren bidez Euskaltzaindiaren lan-egitasmo nagusiak (lexikografia, gramatika, hizkuntza atlasa, herri literatura, onomastika...) indartu dira eta Euskaltzaindiaren egoitza nagusiaren zein lurralde-ordezkaritzen informatizazio osoa burutu da.

2000ko apirilaren 11n, batetik, **UZEI**k eta bestetik Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako bost urterako hitzarmenaren bidez, UZEI burutzen ari den terminologia alorreko lana bermatu nahi izan da.

2000.eko azaroaren 21ean, batetik, **Labayru** Ikastegiaren eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sinatutako lau urterako hitzarmenean Bizkaiko euskalkia jaso, gorde, hobetu eta gizarteratzeko Labayru egiten ari den lana, Bizkaieratik batueraranzkoa, profesionalen etengabeko prestakuntzarako eta euskal gaiez sortutako material ugari eta kalitatezkoak sortzeko eginikoak babestuko dira.

- Literatura Unibertsaleko 100 obra euskaraz jartzeari begira, aurreko urteetan garatutako bidearen ildotik hitzarmena egin da EIZIrekin. Urte honetan amaitutzat eman dira 100 obra horiek euskarara itzultzeko lanak; azken argitalpenek 2001. urtean ikusiko dute argia.

2000.eko abenduaren 13an, batetik, Euskal Herriko **Bertsozale Elkartearen** eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren artean sinatutako hiru urterako hitzarmenean elkarte horrek bideratutako ikerkuntza, hedapen, transmisio, komunikazio eta idazkaritza lanak babestuko dira

2000.eko abenduaren 5ean, batetik **Euskal Idazleen Elkartearen** eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren artean sinatutako lau urterako hitzarmenean elkarte horrek sustatutako hainbat programa babestuko dira, besteak beste informatika-azpiegitura, Barnegats buletina, idazleekin solasean programa, literatur lantegiak, Galeuska.

7.4. Euskararako aurrekontuak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta EAEko hiriburueta 2000ko euskara-aurrekontuen azterketa eta 1997ko emaitzekiko erkaketa egin du.

Halaber, 5000 biztanletik gorako udalerrietako 2000. urteko euskara-aurrekontuen azterketa ere egin du.

Eta, azkenik, 2001eko ekain-uztailean amaituko den Euskararen ekonomi eraginari buruzko azterketa du abian.

Honi erantsitako ageri dira lehen eta bigarren azterketek emandako emaitza nagusiak. Hirugarren azterketaren emaitzak 2001eko urteko txostenean txertatuko dira.

8. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eta Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoaren arteko erkaketa eta horren emaitza nagusiak.

Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10eko Osoko Bilkuraren ondorioz emandako ebazpenetako seigarrenean honako hau dago jasota:

6. ebazpena

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapena bultzatzeko konpromisoa hartua du. Hortaz, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak "Bai Euskarari" akordia sinatu duten gizarte-eragileekin burutuko duen plan estrategikoan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak gizarte-eragile horietako bakoitzaren jardun-esparruaz dioena bultzatzeko konpromiso zehatz eta borondatezkoak hartu eta praktikan ezar ditzaten sustatuko du. Izan ere, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia ez da dokumentu itxi eta aldaezina, irekia eta etengabe egokitzeko sortua baizik, herrigintzan eta gizartegintzan diharduten sektore eta taldeen ekarriek aberastuko duten neurrian eguneratzen joango dena.

Horregatik, Legebiltzar honen borondatea da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren plan estrategikoaz osatzea, herri-aginteen eta gizarte-eragileen lana batuz.

Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak 2000ko maiatzaren 4an izandako bileran, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eta Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoaren testuen erkaketa egitea erabaki zuten. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bilera hartan bertan izendatu zituen arren lantaldea osatzeko bere ordezkariak, lehen bilera azaroa arte atzeratu zen, Kontseiluak bere ordezkariak ez zituelako ordu arte izendatu.

Erkaketa dela eta, maila zehatzenetik hasi (egitarau izan zitezkeenetatik) eta maila orokorragora iristeko moduko dokumentua egin da. Horretarako, elkarren aldamenean jarri dira EBPN eta BEAPE, ikusteko lehendabizi zein esparru lantzen dituzten batak eta besteak. Hortik abiatuta, esandako mailaketaren arabera, baliokidetasunak, ekarpenak eta aldeak markatu dira. Lan hori ez da egin diagnostikoaren mailan.

Erkaketa-lan hori eginda eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia BEAPEekin osatzeari begira, honako ondorio nagusiok atera daitezke:

- Helburu estrategikoen mailan Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoak ez dakarkio berrikuntzarik Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari.
- Jarduera-esparruei dagokienez, BEAPEk ez ditu jorratzen honako jarduera-esparruok:
 - euskalduntze-alfabetatzea;
 - familia bidezko jarraipena;
 - administrazioa;
 - gune euskaldunenak;
 - informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak;
 - aisia;
 - erlijioa;
 - corpus-plangintza eta euskararen kalitatea eta
 - liburugintza.

BEAPEk berriaz jasotzen ditu osasunaren, mundu asistentzialaren eta formazio ez-arautuaren esparruak. BEAPEn lehenengo bietarako ematen diren neurriak edo helburu zehatzak Administrazioaren esparruan ditu jasota EBPNk. Formazio ez-arautua dela eta, BEAPEn ez da jasotzen EBPNn lan-munduko sektorerako esanda ez dagoen neurririk.

Bestalde, EBPNn enpresa-mundua izeneko jarduera-esparrua, hainbat arlotan banatzen da BEAPEn: lan-mundua, elkargo profesionalak, zerbitzu orokorrak, finantza eta aseguruak, komertzioa eta ostalaritza, gainazal handiak eta denda-kateak eta nekazaritza. EBPNn baino modu xehekatuagoan landu nahi izan dira arlo sozioekonomikoa osatuko luketen zenbait atal. Hala ere, atalkatze horrek, eduki aldetik, ez dakarkio ekarpen berezirik EBPNn jasotakoari.

- Helburu zehatzak direla eta, alde nabarmenena bitara ekar daitezke, nagusiki:
 - EBPNk *"A ereduaren hobetzea"* jartzen du irakaskuntzaren esparruko neurri gisa, BEAPEk ez du A ereduaren aipamenik egiten. Murgiltze-ereduaz dihardu honako hau esanez: *"ikasle bakoitzaren hizkuntza abiapuntuari egokitutako murgiltze-ereduak definitu, DBH amaitzean ikaslearen gaitasuna bermatzeko"*.
 - Bestetik, Unibertsitateko irakaskuntza dela eta, EBPNk *"gutxienez enbor-ikasketak eskaini eta lehentasunezko espezialitateak finkatu"* du jasota, eta BEAPEk, berriz, *"oinarrizko hizkuntza euskara izango duen irakaskuntza-sistema osatu"* helburu estrategikoaren ildo modura *"euskal lerroak sortu"* du jasota.
- Bada proposamen-multzo bat, EABren Lege-garapenerako Batzorde-atalean zuzenean edo zeharka aztertu direnak, aztertzen ari direnak edo aztertzeko modukoak direnak:

1. Irakaskuntza dela eta, Euskara ikasteko eskubidea bermatu maila guztietan helburuaren garapen modura, honako ildo estrategiko horiek adierazten ditu:
 - Euskararen ofizialtasun juridiko legala lortu Nafarroan zein Iparraldean.
 - Iparraldean euskarak hezkuntza-sisteman erabateko babes juridiko legala izan dezala lortu.
 - Nafarroako eskualde orotan euskarazko hezkuntzak babes juridiko legala izan dezala lortu.
 2. BEAPEk formazioaren ataleko helburu estrategiko modura dio:
 - Euskararen normalkuntzak sektorean dituen beharretara egokitutako marko juridiko-normatiboa lortu. Horren ildo estrategikotzat jartzen ditu: euskarazko taldeak dauden oztopoei sektore gisa erantzun eta Administrazioarekin beste hitzarmen batzuk lortu.
 3. BEAPEk enpresa-mundua dela eta, erabilera arautzea sustatu helburu estrategikoa du jasota honako ildo estrategiko hauekin:
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen erabilera Legea enpresetan bete.
 - Euskararen erabilera erregulatzeko arauak egin, jarraipen-sistema bat antolatu.
 4. Mundu Asoziatiboaren esparruan, Administrazioaren konpromisoa lortu helburuaren barruan, ildo hau ageri da:
 - Administrazioaren aldetik jarrera proaktiboa eta babes legala lortu ageri da ildo gisa.
 5. BEAPEk prentsaren joera diglosikoa aldatu helburuaren pean bi ildook dakartza:
 - Erdarazko komunikabideetan euskararen gutxieneko presentzia-irizpideak ezarri termino kuantitatibo eta kualitatiboetan, eta errealitate soziolinguistikoa kontuan izanik.
 - Komunikabideetan euskararen presentziaren arauketa administratiboa sustatu.
 6. BEAPEk herri-telebistak direla eta, zer dio: herri-telebistentzako marko juridikoa sortu.
- Egitarau mailan, azkenik, bada proposamenik EBPNren garapenean egiten ari dena indartzera letorkeena, esaterako:
 - Irakaskuntzaren esparruan ikastetxeetako hizkuntza-normalkuntzako proiektuen inguruko proposamena.
 - Lan-munduan Hobetuz eta Forcem-eko enpresetako langileak euskalduntzeko ikastaro teknikoak euskaraz emateko finantzazioa lortzeari begirakoa.

Egitarauen mailan, halaber, EBPNn ageri ez diren zenbait azpiegitura berri sortzea aurreikusten da BEAPEn, gizarte-eragileei zenbait zerbitzu eskaintzeko: nekazaritzaren, ekitaldi antolatzaileen, prentsa idatziaren, irriaren eta publizitatearen esparruetan. Hona jasotakoak: *"Eusko Jaurlaritzako eta Nafar Gobernuako Nekazaritza Sailek gobernatzen dituzten mahai kontsultiboetan euskararen gestioa hobetzeko zerbitzua"*; *"Euskal Herriko Ekitaldi Antolatzaileen Elkarte eratu eta Sektorearen euskara-departamentua"*; *"Euskarazko berriak ematea erraztuko duen azpiegituraren garapena"*; *"Euskararen normalkuntzan sentsibilizaturik dauden irratien artean erakunde iraunkor bat"*; *"Publizitate agentzietan, elkarteetan, federazioan Euskara Batzordea"*.

Egitarauen mailan, halaber, badira berriaz Unibertsitateari dagozkionak, espreski EBPNn jasota ez daudenak: Hizkuntza Normalizaziorako Gabinetea sortzea; erakunde publiko eta pribatuekin hitzarmenak sinatzea, euskararen sustapenean elkarlana bultzatzeko; eta, Unibertsitatea instituzio bezala eta bertan aritzen den jendearen arteko harremana euskalduntzea dioena. Horiek, EBPNren garapenean unibertsitate publiko eta pribatuekin aztertzeak lirateke.

Amaitzeko, ez bide dirudi BEAPEk eginiko ekarpen puntual zenbait alde batera utzirik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiarekiko aparteko alderik duenik, nahiz eta EBPN onartu eta berretsi ostean gizarteratu den Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak eginiko plan estrategikoa, bigarrena dena.

Horrenbestez, hauxe litzateke Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren proposamena: BEAPEren ekarpen jakin horiekin EBPN osatzea, aurrez, Euskararen Aholku Batzordearen batzorde-atal desberdinek ekarpen horiek non eta nola txertatu aztertu eta erabaki ostean.

9. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren udaletako garapena.

Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartzeaz batera, EBPN Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan garatzeko oinarrizko irizpideak aztertzeke eskatu zuen, besteak beste.

Hori horrela, Euskararen Aholku Batzordeak 2000ko lan-egitarauan, hiriburuetan ezezik 5.000 biztanletik gorako udalerrietan ere EBPN garatzeko oinarrizko azterketa eta proposamena egitea hobetsi zuen.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia gidari, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan garatzeko moduko plan xehatuak egin nahi izan dira, udalek euskararen erabilera areagotzeko lanetan gida eta erreferentzia egokitua izan dezaten.

Hain zuzen ere, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian jasotakoarekiko beste urrats bat eman nahian, planaren aplikazioa, hau da, neurrien ekintzen bidezko garapena egitera jo da, udalen egoera soziolinguistikoa eta biztanle-kopurua kontuan.

Udalez udaleko egokitzapena egitea ezinezkoa zenez, udal-ereduak edo taldeak definitu dira bi parametrari begiratuta: udal bakoitzaren biztanle-kopurua, 1996ko Erroldako datuen arabera, eta euskaldun-kopuruaren portzentajea.

Udalen tamainari dagokionez, tarte horiek aurreikusi dira:

- 5.000tik 10.000ra bitarteko biztanle-kopurua duten udalerriak.
- 10.000 biztanle baino gehiago dituztenak.

Beste aldetik, euskaldunen kopuruari begiratzuz:

- %15era bitarteko euskaldunen portzentajea duten udalerriak.
- %15etik %50era bitartekoak.
- %50etik eta %70era bitartekoak.
- %70etik gorakoak.

Datu horiek gurutzatuta zazpi udal-talde ateratzen dira. Horietaz gain, hiriburuak, bakoitza bere aldetik aztertzea erabaki da, Eusko Legebiltzarraren aginduari jarraiki.

		BIZTANLEAK	
		(1)5.000 10.000	(2)10.000<
EUSKAL DUNEN %	(A) >%15	A1	A2
	(B) %15-%50	B1	B2
	(C) %50-%70	C1	C2
	(D) %70<	D	

Zazpi hauetaz gain, lehen aipatu den modura, hiru hiriburuak hartu dira kontuan, guztira hamar eredu aztertu direlarik.

9.1. Lanaren metodologia

Lan honen abiapuntua EBPN izan da; bertan ditugu hiru helburu estrategiko eta 91 oinarrizko neurri, 17 esparrutan banatuta. Horiek banan-banan ikusi eta aztertu dira eta udaletan garatzekoak direnak aukeratu dira. Azterketa horren ondoren, 30 oinarrizko neurri aukeratu dira.

Azterketa hori burutzeko datu asko erabili da; gaur egun udaletan euskararen erabilera normalizatzeko xedearekin egiten diren egitasmoak aztertu dira, adibidez, landu diren hainbat euskara planetan jasotzen direnak, dirulaguntzak eskatzerakoan udalek aurkezten dituzten egitasmoak, eta abar. Argi utzi behar da, dena den, egin den aukeraketa ez dela aukeraketa posible bakarra, eta, beharbada, ez egokiena kasu guztietan; beraz, oinarrizko lan-tresna honen laguntzaz, udalari dagokio tokian tokira egokitzea hemen aurkezten den eredu irekia, etengabe aberasten eta eguneratzen joan dadin.

Udaletan aplikagarriak diren neurriak erabakita, plangintza operatiboaren egiturari egokitzeko ildoak finkatu dira eta ondoren datozen urratsak eman dira:

1. Helburu zehatzak finkatu dira, aukeratutako oinarrizko neurrietatik abiatuta, esaldi bakarreko helburu gisa formulatuz. Hortaz, 20 helburu zehaztu dira.
2. Ondoren ildo estrategikoak zehaztu dira, hau da, helburu horiek lortzeko jarraitu beharreko bideak, guztira 41 izan direlarik. Azkenik, ildo horiek garatzeko ekintzak finkatu dira, esparruz esparru. Guztira, 120 ekintza proposatu dira.
3. Eredu bakoitzaren ezaugarriak, hau da, egoera soziolinguistikoa eta biztanleen kopurua kontuan, gehien eragin beharko liratekeen esparruak zehaztu dira. Horren ondoren, eragingarritasunaren eta bideragarritasunaren arabera puntuatu dira ekintzak, lehenetsuenen

hurrenkeran jarriz ereduz eredu (erabateko lehentasuna duten ekintzak, lehentasun altukoak, ertainekoak eta baxukoak).

4. Esparru eta ekintzen lehentasun horiek eraman nahi izan ditugu aurrekontuetara: esparru bakoitzera esleitu daitekeen aurrekontu-portzentajearen tarteak eman ditugu, behin-behineko abiapuntu modura.
5. Honen guztiaren jarraipenerako eta udal bakoitzak eredu dena berera egokitu dezan, tresna eratu da software bereziaren bidez. Horretan, plangintzaren definizioaren oinarritzko informazioa sartu da, ondoren erabiltzaileak ekintza edo egitasmo jakinen inguruko informazioaz elikatzeko. Hau da, plangintza operatibora iristeko bidea eta baliabideak eskaintzen dira.

Hau da, beraz, jarraitu den metodologia esku artean ditugun ereduak zehazterakoan.

Orain, udalari dagokio inguruko baldintzak eta egoera kontuan izanik, aurkezten den eredu bere errealitateari egokitzea, eta beraz, bere urteko plana osatzea.

Horretarako, azaldutako metodologiari jarraituz, prozesu osoa hasieratik burutzea eta berraztertzea proposatzen da. Hau da, lehenengoz, eman diren urratsak berrikustea; bigarrenaz udal bakoitzak berera egokitzea, aplikazio informatikoaren laguntzaz eta hirugarrenaz, aurrekontuak finkatzea.

Prozesua burutu ondoren, udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia udal mailan garatzeko Plan estrategikoa izango du. Horrez gain aplikazio informatikoari esker, urteko kudeaketa-plana ere izango du udalak.

9.2. Helburuen hedapena

Eredu bakoitzerako plangintzaren irizpide nagusiak emateaz gain, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak plangintzaren jarraipen eta ebaluaziorako bereziki diseinaturiko softwarea jarri nahi izan du udalen eskuetan. Plangintza Estrategikoaren arloan erabili ohi den tresna hau, "Helburuen Hedapena" izenaz da ezaguna.

kudeaketarako baliabidea da, beraz, Helburuen Hedapena tresna. Plangintza Estrategikoa definitu ondoren, plangintza abian jartzeko orduan eman beharreko urratsak zehazten laguntzen du. Tresna informatiko honen bidez, plangintza orokorrean ezarritako helburuak,

ildoak eta ekintzak epe zehatzetara ekartzea, horien arduradunak izendatzea eta baliabideen estimazioa egitea ahalbidetzen da.

Horrela, arduradunek erraz eta samur egin dezakete helburuen eta ekintzen jarraipena, uneoro ikusiz zer den eginda dagoena, zer falta dena eta non dauden eragozpenak edo arazoak. Oro har, "Helburuen Hedapena" tresnak aukera horiek eskaintzen dizkio erabiltzaileari:

- Urte bakoitzerako helburuak eta horiek lortzeko abiarazi beharreko ekintzak.
- Betekizun edo ekintza bakoitzerako arduradunen definizioa.
- Estrategi bakoitzean ekintzak eta zereginak zehaztea.
- Ekintza bakoitzaren jarraipena egiteko adierazleak ezartzeko bidea.
- Baliabideak ekintzaz ekintza kuantifikatzea, gero guztiaren balorazio orokorra bideratu ahal izateko.
- Kudeaketarako plana zehaztea.
- Prozesuen estandarizazio bati ekitea.

Udal bakoitzak bere ereduari dagokion tresnaren bertsioa izango du. Esandakoaren ildotik, euskara-arduradunek, emandako informazioa erreferentziatzat hartuta, programak eskatzen dituen datuak eta zehaztasunak jarri beharko dituzte.